

EUSKAL HERRIKO

134
ZENBAKIA

2022ko MAIATZA-EKAINA

Natura



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

**HONTZ HANDIA, ORDU
TXIKIETAKO ERRALDOIA**

**MOZOLO ARRUNTA
FIDELTASUNAREN
EREDU**

**APO HONTZA,
IKUSEZINA ETA
FIDAKORRA**

**HONTZ ZURIA,
GAUEKO ERREGEA**

**ZINGIRA-HONTZA,
NEGUKO BISITARIA**

**URUBIA,
ILUNTASUNAREN
JAUNA**

GAUEKO HARRAPARIAK



ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEAK HORIEN SARTZEA EKIDIN!



araba álava
foru alundia diputación foral

ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEEN HEDAPENA ARRISKUTSUA
DA BIODIBERTSITATEARENTZAT. EZ SARTU



EUSKAL HERRIKO
NATURA

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

DESAGERTZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK DEFENDATZEKO
ELKARTEA

ZURE NATUR ETA ZOOLOGIA ALDIZKARIA

AURKIBIDEA

EUSKAL HERRIKO NATURA- 134.zk - 2022ko -MAIATZA-EKAINA - 6€



Gaueko harrapariak	4
Dauden espezieak eta eguneko harrapariekin duten erlazio filogenetikoa	4
Ezaugarri orokorrak	4
Ikusmena	5
Gaueko ehiztari isilak	6
Elikadura	6
Nola ugaltzen dira gaueko harrapariak?	7
Izaera	7
Hontz handia	8
Ordu txikietako erraldoia	8
Hontz ertaina	12
Apo -hontza	14
Ikusezina eta fidakorra	14
Mozolo arrunta	16
Fidelitasunaren eredu	16
Urubia, Iluntasunaren jauna	18
Hontz zuria	22
Gaueko erregea	22



Zingira-hontza	26
Neguko bisitaria	26
Eguneko harrapariak-Miruak	28
Miru beltza, Bizizale moldakorra	28
Miru gorria, Euskadiko bitxia	31
Zapelatzak	32
Zapelatz arruta, Zuhaitzetako harraparia	33
Aztoreak	34
Gabiraia	35
Adarrarteko iratxoak	35



Aztorea, basoako jaioa	37
Europako saiak	39
Sai arrea, zuzperten	39
Sai zuria	42
Sai ibiltaria	42
Ugatza	44
Labarretako ahaltsua	44
Liztorjaleak	48
Zapelatz liztorjaleak	48
Intsektuak jangai	48



EUSKAL HERRIKO
NATURA

Zuzendaria: Fernando Pedro Pérez.
Erredakzio-burua: Ruben. B. Caballero.
Kolaboratzaileak: Cristina Urionabarrenetxea Nerea Urtean, Miren Alustiza, Oskar Azkona, Jon Lopez, Kepa Murua, Jon Zubiri, Elena Azkarreta, Xabier Aramburu, Kepa Alustiza.
Argazkilari-taldea: Edurne Urkizu, Aitor Zubizarreta, Xabier Urreta, Izaskun Loidi.
Maketatzailea: Pilar Morras Alonso.
Legezko gordailua: BI-2452-02.
ISSN: 1695-4645 **Aleak:** 2.000

Erredakzioa:
Av. Madariaga, nº. 47-6º C - Esc.1 - 48014 BILBAO.
Tel: (94) 4 75 28 83. e-maila: adeve1991@gmail.com

Argitaratzailea:
Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak
Defendatzeko Elkarte.



EHAA-1996ko otsailak 7, asteazkena.
3/1996 DEKRETUA, urtarrilaren 9koa, Elkarte
herri-onurakoa dela aintzatesten duena.



HARPIDETZA-ORRIA

Urteko kuota: Hamabi ale urtean: 36 euro. TLF: 94 475 28 83

DAUDEN ESPEZIEAK ETA EGUNEKO HARRAPARIEKIN DUTEN ERLAZIO FILOGENETIKOA

Batzuk eta besteak harrapariak izan arren, ornitologo-
goen iritziz, gautarrek erlazio eskasa dute eguneko harrapariekin, hauek falkoniformeen ordenaren barruan bilduta daudela diote. Horregatik, beste zuhaitz-hegazti batzuekin batera, beste ordena batean sartu dituzte, estrigiformeen ordenaren barruan hain zuzen. Izan ere, gautarrek kromosometan eta ADN-egituraren erakusten dituzten ezaugarri batzuek frogatu egiten dute gaueko harrapariak eta egunekoak nahiko eboluzio berezia izan dutela. Izatez, zoologo gehienek iritziz, gaueko harrapariak eta egunekoak ager dezaketen edozein antz edo berdintasun, eboluzio konbergentearen, hots, bilakaera paraleloaren ondorio besterik ez da.

Hala eta guztiz ere, arestiko ikerketek indartu egin dute aditu batzuen iritzia, hots, gaueko erregeek ahaidetasun filogenetikoa dutela belatzekin. Gaueko harrapariak estrigiformeen ordenakoak dira, bi familia direla ordena horren osagai: titonidoen edo hontza zurien familia, 2 genero eta 10 espezie dituen, horietako batek gure basoetan habia egiten duelarik, eta estrigidoen familia, azken honetakoak direla hontza handiak, urubiak, apo-hontzak eta mozolo arruntak. 27 familia eta 124 espezie biltzen dituela, horietarik bost Euskadin habiagile direnak: hontza handia, hontza ertaina, urubi arrunta, apo-hontza eta mozolo arrunta. Beste espezie batek bisitatzen gaitu neguan: zingira-



hontzak.

Mundu osoan zabal banatuak ditugu gaueko harrapariak, uharte batzuetan eta Antartikan izan ezik. Berdin bizi dira kostaldeetan, estepetan, desertuetan, hirietan eta 5.000 metrotik gorako altitudeetan. Horrek erakusten du oso hegazti zaharrak direla, aspaldidanik existitzen direnak, eta kontinenteen desplazamendua gertatu baino lehen zabal hedaturik egon behar izan zirela.

EZAUGARRI OROKORRAK

Gaueko harrapariak, ilunabarreko eta gaueko ehizan espezializatuak dauden 134 espezieetatik, %30ek beren jardueran osoa egunez burutzen duten arren, garbi bereizten dira egunekoengandik beren anatomia bereziarengatik. Buru zabal eta handia dute, luma usuez estalia, eta bertan nabarmentzen dira bi begi handitza, zirkulu zentrokideetan eratutako lumentz inguratuak. Espezie gehienek lumaje arre edo gris iluna dute, zuhaitz-azalez osaturiko habitateko ingurunearekin erraz nahasgarri dena.

Itxura ezberdinak edukitzeaz gainera, beren anatomian sakontzen badugu, gaueko eta eguneko harraparien arteko diferentziak areagotu egiten dira.



Egunekoek ez bezala, gaueko harrapariak ez dute paparorik, arku bat dute aurreko gorputzadarreko erradio-hezurrean, eguneko ahaideek ez dutena, baita heste-itsu luzeak ere. Era berean, begi eta belarrien diseinu aurreratua dute eta ohitura gautarrei moldaturiko lumaje leuna.

Moko makurra, atzapar handiak

Gaueko harrapariak hanka luzeak dituzte, atzaparretaraino lumaz beteak eta behatz motzez homituak, kanpoko behatza oposagarria delarik. Beren harrapakinak oratu ahal izateko hatzapar zorrotzak dituzte.

Beste arma hilgile bat dute beren ana-

tomia ahaltsuan, hots, moko makurra. Harrapakinei atzaparrez oratzen dieten bitartean, mokoaz baliatzen dira harrapakin horiek hiltzeko eta irensteko edo beren txitoentzat zatikatzeko.

Lehen ikusian txikia dirudi mokoak, neurri handi batean, lumaje artean ezkutatuturik dagoelako. Baina karraskari txiki oso bat irensteko adinako tamainako ahoa dute.

Ikusmena

Ospetsua da gaueko harraparien ikusmena. Izan ere, ikusteko gauza dira ia iluntasun betean, begiak moldaturik baitituzte oso argi-intensitate motelean ikusteko.

Beren eboluzioan zehar, naturak begi-nini handiak eman dizkie hegazti hauei, eta bastoixo izugarri sentibera asko dituzten zelula ugarienez hornitutako erretina bat. Horren ondorioz, ikusmen kolorebakarrekoa besterik ez dute, baina, ordainez, beren begi-nini zabalduak gauean sartzen uzten duten argi eskasaren aprobetxamendu hobezina lortzen dute. Begi-nini zabal horietan, hezur-betzuloek argazki makina baten halako kontradiafragmaren moduan jarduten dute, argiztapen eta argi hedatuaren kontrako babesa eskaintzen dieten kornearen eta erretinaren arteko benetako tutu bilakatzen baitira.

Orain, begi-globo handi horiek ia ibilgeak dira, eta lurra arakatu edo begirada objektu batean ezarri behar dutenean, gaueko harrapari hauek buru osoa biratu behar dute. Zorionean, beren begien mugikortasun eza, betzuloetan finko egonik, lepoaren malgutasun sinestezinarekin konpentsatzen dute; izan ere, beren buruari 360 graduko buelta eman diezaiokete, eta alderantziz jarri, objektua ikusmen-eremutik ez galtzeko mugimendu oso azkarrak egiten dituzten bitartean.

Gainera, mintz niktitantea opakoa da, eta ez dituzte begiak buru-albotan gainerako hegaztien kasuan bezala, aurrealderantz kokaturik baizik, baina begi-ardatzak ez dira giza-kiarenak bezala, bereak paraleloak eta kanpora samar begira daude.

Gaueko harrapariak espazioaz ohartzeko ahalmen bikaina dute, beren begien ikusmen-eremuak bata besteari gainjartzen baitzaizkio ia erabat. Ahalmen horrek inguru-ikuspegia mugatzen du, eta, horrela, erraz hartzen dira ezustean hegazti hauek, leku batean pausaturik daudela, albotik edo atzetik hurbilduz gero. Hala ere, ez ohi da ezusterik gertatu, animalia-entzumen izugarri zorrotzak arrotzaren presentzia jabeazten baitu. Zentzumen baten zorrotzasunak bestearen ahu-



lezia osatzen du.

Zuzeneko argia jasan ezin dutenean eta giroko argitasun handia denean begiak txilotzera beharturik dauden espeziak, egunez guztiz ongi ikusi arren, begi-zelula konoidal gutxiago dituzte, kolorezko ikusmenerakoak direnak, egunez jarduten duten espezieek baino.

Entzumena

Gaueko harrapariarentzat entzumena oso garrantzitsua da, ikusmen orientazioarekin gabe, harrapakinak hautemateko. Espezie batzuek, hontza handiak edo hontza ertainak kasu, entzumen-lumak dituzte, beren entzumenerako funtsezko eraginik ez duten arren, soinuak bildu eta eramateko garrantzizko eginkizuna betetzen dutenak.

Bi belarrietako entzumen-hodiek konfigurazio berezia dute, espezie hauengan, norabidezko entzumenerako, hau da, soinu-uhinek belari bietara iristean agertzen duten denbora-diferentziak hartzeko. Beste espezie batzuek, hontza zuriek kasu, operkulu bat dute belarrian, entzumen-hodia kanporantz ixteko aukera ematen dietena.

Hontzen entzumenari buruz egindako azterlanek erakutsi dutenez, espezie hauek gehiago fidatzen dira beren belarriaren zentzumen "estereofonikoaz", beren ikusmenaz baino. Izan ere, espezie gehienek bi plano ezberdin samarretan dituzte kokaturik kanpo-belarria eta barne-belarria, hots denboran desfasatu samarrak diren soinuak bi belarriez entzun ahal izateko. Honi esker, hotsaren jatorria kalkulatu dezakete eta iluntasun osoan zehaztasunez eraso baita begiak bendaturik edukita ere.



GAUEKO EHIZTARI ISILAK

Gaueko harraparietzat ez da ustekabea edo abiadura harrapakinei hurreratu eta hauek harrapatzeko bide ematen diena, isiltasuna baizik. Hegazti hauek ditugu, bada, gaueko ehiztari isilak.

Hegada isila garatu dute gaueko harrapariak basoko soinuak motelena entzun eta beren harrapakinak ezustean hartzeko. Posible da hori beren lumaje zetatsuari esker, airearen hotsa moteltzeko sortua baita.

Hegazti gehienek hego-lumek ertz garbia agertzen badute, gaueko harrapariak orrazi-formako mendel fina dute, hegoen profil arruntez sortzen diren aire-zurrumbilo handi eta zaratsatuak xehatzen dituenak. Bestalde, bere hegoek duten kanpo-azala izugarri biguna da, igurtzi bidez sor litezkeen soinuak galarazteko. Hegoen egitura berezi horrek eta lumajearen biguntasunak bide ematen die gaueko erregeei hegada hots gabea egiteko, gainerako hegaztie-



naz oso bestelakoa, arina eta geldo samarra eguneko harraparienaren aldean, baina anitza eta berezia.

Lurrean, nahiko dorpeak izaten dira gaueko harrapari gehienak, hanka luzeak dituztenak izan ezik, hauek, guztiz ongi ibiltzeaz gainera, korrika eta sarritan hegoez lagunduta egiten baitituzte beren ehizaldietako batzuk. Adar artean, ordea, trebetasunez mugitzen dira guztiak.

ELIKADURA

Beren atzapar indartsuek eta moko gogor zorrotzak bide ematen diete gaueko harrapariei ehizan egiteko. Ehizan aritzen dira guztiak, baina, espeziea eta tamainaren arabera, harrapakin ezberdinak dituzte elikagai; intsektuak, arrainak edo urlehorrak, nahiz hegaztiak eta ugaztunak harrapatzen dituztelarik. Dena dela, saguek eta satitsuek osatzen dute, batez ere, haien elikadura.

Espezie guztiek erdeinatzen dituzte animalia hilak, saiek ez bezala, ez baitute ohitura sarraskijalerik.

Harrapakin txikiak oso-osorik irensten dituzte, handiak ordea, larru, ile, luma hezur eta guzti zatikatu egin ondoren,. Digeritu ez diren geldikinak goitikatu egiten dituzte "egagropiloak" eraturik, biologoei haien elikagaien berri ematen dieten halako bola batzuk. Oso digestio-prozesu arina dute, beren urdail-urin ahaltsuek azkar asko deskonposatzen baitute edozein jan-gai.

Gaueko erregeak diren estrigiforme hauek gogorrak izan dira, fisiologiari dagokionez. Beren ezaugarri tipikoetako bat apendiz bermeformea da, zirinaz gainera, irazkin bereziak jariatzen dituenak. Gainera, denbora luzea egon daitezke edan gabe, beren biktimen odola nahikoa gertatzen baitzaie likido-beharrianak



asetzeko, ura ere edaten duten arren. Hontza zuriek nahiz hontza handiek ehiza-teknika batzuk erabiltzen dituzte beren biktimak atzemateko. Lehenengoa, zelaien gainetik hegada baxu eta arina egitea da, beren entzumen zoliaz eta ikusmen zorrotzaz, ilargi egunetan bereziki, karraskarien zelatan aritzen direlarik. Bigarrenean, espezie zuhaitzarragoek, urubiek eta mozoloek kasu, berezkoa duten horretan, basoko toki gailenetan, hots, adar edo gaindegietan, ibilge eta zelatan, geratzen dira, leku horietatik animaliek egiten dituzten mugimendurik edo hotsik txikiak detektatuz. Ehizarako agertzen duten eraginkortasunari buruz egindako azterlan batzuetan erakusten denez, egiten duten eraso bakoitzean atzematen dituzten harrapakinen portzentajea ustez baino askoz ere altuagoa da, beren moldaketa morfologiko bikainari esker.

NOLA UGALTZEN DIRA GAUEKO HARRAPARIAK?

Estrigiformeentzat, nahiz gainerako hegaztientzat, habia egiteko eta txitoak umatzeko garaia da bere urteko zikloan garrantzitsua, eta, ondorioz, energia piloa ematen diote zeregin honi. Oro har, udaberrian gertatzen da fase hori, txitoen gizentzea eta hasierako hegadak harrapakin gehien dagoen garaian gerta daitezten.

Gaueko harrapari gehienak monogamoak dira, eta elkartuta egon ohi dira bizi diren bitartean; horixe gertatzen da, esaterako, mozoloaren eta hontza handiaren kasuan.

"Ilunabarreko jabeak" isil-gordean eta ezkutuan ibiltzen dira, baina isiltasun hori urratu egiten da hegazti horiek araldian eta ondoren, bikotea aurkitzean jaulkitzen dituzten garrasiekin. Behin elkartuta, gurasoek ez ohi dute habiarik egiten, beren arrautza zuri eta biribilak lurrean edo zuhaitzen zuloetan, haitzetan, arrail naturalan, eraikin-hondakinetan, kanpandorre zaharretan...uzten dituzte ordea. Batzuetan bakarrik estaltzen dute habia hostoez.

Erruten dituzten arrautzen kopurua, bi eta hamar bitartean, dauden baliabideen arabera izan ohi da neurri on batean. Horrela, baliabideak urriak izanez gero, txito txikiak sakrifikatu egiten dira handien alde; baliabide oparoak egonez gero, ordea, txito guztiak garatzen dira, eta bikoteek are bigarren txitaldi bat egiten dute.



Emeak izaten dira, oro har, arrautzak berotzen dituztenak, lehenengo arrautza erruten duten unetik. Aldi-hurrenkeran gertatzen da arrautzen eklosioa, bata bestearen ondoren, 30 egun inguruko txitaldia egin eta gero. Txito batzuk besteak baino handiagoak dira eta aurrenik jaioak direnak sendagoak dira; ondorioz, txito txikiak besteak baino janari gutxiago jasotzen dute eta ez dute kozkortzerik lortzen.

Gizakiaren begietarako ankerra den elikaduraren alderdi hori positiboa gertatzen da familiaren multzorako eta espeziearentzat; izan ere, txito guztiek elikadura berbera jaso ezker, are eta posibleagoa izango litzateke, urte urrietan, guztiak goseak jota hiltzea.

Txitoak itsu, belarriak itxita eta lumatxa zuri meheaz estalita jaiotzen dira. Espezie batzuek ordezkatu egiten dute lumatxa hori beste batez; beste batzuei berriz, lumak ateratzen zaizkie besterik gabe.

Espezieak agertzen duen senetzko biziraupen-jokaera hori dela eta, gurasoek, lehen ikusian, anker badirudite ere, ausardia ezohikoa erakusten dute txitaldia defendatzerako orduan, eta arriskuan jartzen dute beren bizia, etsaiak habiatik uxatzeraino.

Txitoek nahiko denbora luzea ematen dute habian, beste hegazti batzuen aldean.

IZAERA

Gaueko harrapariak hegazti zuhurrak dira, baina ez dakite egiazko arriskua ustezkotik bereizten, ezta lagunak etsaiengandik desberdintzen ere. Arriskua somatzen dute pertsona guztiengan, are objektu ezezagunetan ere, eta ez dira gutxienean adimena behar duten ariketak ikasteko gauza.

Espezie batetik bestera izaera aldakorra badute ere, haserrekor eta zakar bihurtzen dira, oro har, araldian gogait eragiten bazaie.

Espezie bereko hegaztiak elkarrekin bakean bizi ohi badira ere, nahikoa da haiengan grinarik txikiena ernatzea etsai amorratu bilakatzeko. Batzuetan, elkarren



artearen erasotzen dute, garaileak garaitua jaten duela-rik. Izatez, aske bizi ez direnean, hegazti heldu sanok beren bizikide ahul edo gaixoei erasotzen diete sarritan.

HONTZ HANDIA, ORDU TXIKIETAKO ERRALDOIA



NOLA EZAGUTU?: harrapari honek hiru kilogramo eta erdiko pisua har dezake, eta hirurogeita hamar zentimetroko altuerara eta ia bi metroko hego-luzerara iritsi. Ezaugarri anatomiko horiek Europako iparraldean bizi diren hegaztien berezkoak dira, gure mendietan ordea, arraroak dira bi kilogramoko pisua gainditzten duten hegaztiak, izatez, kilogramo eta erdiko pisua izan ohi dute.

Nahastezina gertatzen da bere tamaina handiagatik, bere gorputza estaltzen duen lumaje okreagatik, aurpegian begi laranja handitzarren gainean dituen luma-moto luze tente horrengatik eta bere atzapar indartsuengatik. Gauari loturiko bere edertasun arraroa berehala nabarmen-tzen zaio hegaztia adarren batean pausaturik ikusteko aukera duen behatzaileari.

Egunez nekez ikus daiteke, bere lumajea, kamuflajerako



arma boteretsua, ezkutu eta lo-kuluxkan dagoeneko haitzekin edo zuhaitzen azalarekin nahasi egiten delako. Oraindik nahasgarriago gertatzeko eta zuhaitz edo haitzaren parte dela emateko, lumak batzen dizkio gorputzari eta belarrietako motoak jaisten ditu. Atsedenaldira dagoenean, hontza handiak begiak txilotzen ditu eta lozorro arin batean erortzen da, hotsik txikienarekin esnatuz. Une horretan, luma-motoak altxatzen ditu eta burua biratzen du bere begirada hotsaldera zuzentzeko.

BIOLOGIA: hontza handiaren ikusmen apartak, iluntasunean ikusteko aukera ematen dio. Bere begi handitarrak argiaz ohartzeko gauza dira, are ilargirik gabeko gauetan ere, beren erretina bereziari esker. Begiaren egitura bereziak, koloreaz ohartzeko zelula konikoak barik, argia hartzeko zelula zilindrikoez horniturik baita-

go, gau-ikuspen paregabea ematen dio. Zelula zilindriko horiei esker, informazio osoa lortzen du ikusitako lurraldearen erliebeari buruz, harrapakin baten mugimenduari buruz eta beragandik dagoen aldeari buruz. Esan liteke hontza handiek, gauean, zuri-beltzez ikusten dutela, xehetasunik txikiena ere galdu gabe.

Ikusmen bikaina edukirik ere, entzumenari esker atzematen ditu bere harrapakin gehienak.

Organo horrek aurpegi-diskoa du kanpoaldeko apaingarri, lumatxo finez osatua. Disko horren eginkizuna soinuak jaso eta kanpo-belarriara zuzentzea da, belarri hori larruazalaren zenbait tolesduraz osaturik dagoelarik. Belarri bakoitzak kanpoko soinuak analizatzen ditu bere aldetik. Era horretan, hontza handiak biktimaren jarreraren informazio zehatza lortzen du.

Esperimentu ornitologikoez frogatu dutenez, entzumena ikusmena baino garrantzitsuago zaie hontza handiei, ehizarako orduan. Izatez, hegazti batek, begiak estalirik dituela, ez du inolako arazorik harrapakin bat atzemateko. Aitzitik, entzumenik gabe, hontza handiaren erasoek huts egiten dute ia beti.

Ugalketa

Hontza handia dugu araldian aurrenik sartzen diren gaueko harraparietakoa. Abenduaren amaiera aldera edo urtarilaren hasieran, negua hasi berria dagoela, jaulkitzen dute arrek beren ulu indartsua, gau luze hotzetan.



Maitasunaren deiek burrunbatzen dute oihartzun ahaltsuaren antzean hainbat kilometrotara dauden labarretan. Bere kantu monotonoa gelditu egiten da erantzunaren zain, mezuak oihartzunetik duen egiaztatzeko. Erantzuna jasotzekotan, gau-isiltasuna urratu egingo da dei-erantzun etengabeen trukaketa batez. Baina bikotea egitea ez da soinu-trukaketa horretan soilik oinarritzen, eguneko harraparien kasuan bezala, bikoteak hainbat goranzko hegaldi eta planeatzeko egiten ditu ere neguko gau betean. Zeremonia hori arraren dantzarekin amaitzen da: arra, luze-luze eginda eta lumak gorputzari batuta, emeari hurreratzen zaio, jarraian, estaldura egiteko. Bikoteak, dagoeneko sendotuta, hurbilgaitza eta behar bezala babestutako lekua bilatzen du errutea egiteko. Leku hobetsien artean hainbat hamarrek metro tara dauden harkaitz-labarretako haitzulo eta erlaitzak ditu, beti gain-bisera batez estaliak edo, batzuetan, ohikoa den landarezko estaldura batez ezkutatua.

Emeak lurlean zuzenean erruten ditu 3 edo 4 arrautza, bost batzuetan, bi egunetik lautarako bitarteak gordetzen ditu errute batetik bestera, eta inkubazioari ekiten dio lehenengo errutetik. 35 egun inguru igarota jaiotzen dira txitoak, eta emeak, oso arduratsu, arrak dakarren janaria hartzeko baino ez du habia uzten. Elikagaia etzalekutik urrutiratu samar dauden pausalekuan jaten du, biktimen hondakinetan dagoen ile, luma edo hezur kantitate handiak agerian jar diezakeelako habiaren kokalekua beste harrapari batzuei. Hala eta guztiz ere, gurasoak hain dira fidagaitzak, ezen, beren



"etxearen" segurtasuna guztiz bermaturik ez badago, beste leku batera eramaten dutela.

Txitoek, batzuen eta besteen arteko jaiotze denbora-tarte garrantzitsuak direla eta, tamaina diferentzia handiak izaten dituzte beren bizitzaren hasieran. Horregatik, txita txikienak hil egin daitezke, gainerako txitoak edo gurasoak mokadutxoak jota, indartsuenek egoera oso eskasetan biziraun dezaten, pieza eskasen edo eskasien kasuan. Ikusia da, aitzitik, hontza handi helduek atxikimendu handia dutela beren kumeekiko, eta jaten ematera joaten dira haiek kenduak eta kaiolatuak izan badira ere.

Txitak, oso azkar hazten dira, gurasoen zaintza ezin hobeei esker. Gainera, oso kume zoli eta ongi irakatsiak dira, eta edozein arrisku egonez gero, uxatzeko taktika bat erabiltzen dute harrapariaren aurrean: hanpatu eta harrotu egiten dituzte beren gorputzeko luma guztiak, hegoak ere irekitzen dituztelarik. Taktika hori erabiliz, beren tamaina hirukoizten dute, eta, horrekin batera, mokoarekin kaskakoak eta kriskitin-hotsak eginez, harrapariak beldurtu eta ihes egitea lortzen dute.

Txitoak labarren artean saltoka ibiltzeko gai dira, jaio eta ozta-ozta hiru aste igarota. Hilabete bat geroago hasten dituzte beren lehenengo hegaldi-ikasketak, eta, hilabete gutxitan, badira ugaltzeko gai.



ELIKADURA: eguna igarotzen bada gorabeherarik gabe, ilunabarean esnatzen da hontza handia, eta janari bila joaten da.

Askotariko elikagaiak jaten ditu, harrapari izugarria baita, ornodun mota guztiak jaten dituena. Ugaztunak, hala nola, karraskariak, urtxintzak, untxiak edo erbiak, mustelidoak, korbidoak, usoak,

narrastiak, urlehortarrak, arrainak edo intsektuak. Dena dela, saguzarrak edo beren familiako espezie txikiagoak, esaterako, mozoloak, apo-hontzak, edo zapelatzen tamainako eguneko harrapariak ere, izaten ohi dira, hontza handiaren harrapakin. Ia ez dago atzera egitera behartzen duenik, ezta kirikinoen orratz babesgarriek ere.

Harrapakinak ezustean hartzeko helburuz, hontza handiak eguneko harraparien berezko taktikak erabiltzen ditu askotan; izan ere, lurretik altuera txikian hegan egiten du saguak edo untxiak, basoko argiguneetan, ezustean harrapatzeko. Ehiza-aldiak ikusi dira, untxiak sasitza artean ezkutaturik eta hontza handiek beren hegoez adaxkak kolpaturik haiek ikartzeko eta irtenarazteko.

Dena dela, gainerako gaueko harraparien kasuan bezala, zelatan eta adi egotea da taktikarik erabiliiena, gero harrapakinari isil-isil hurreartzeko. Bere hego zetatsuen konfigurazioak -ertzetan txiribilik gabe- hegada isila ematen diote, eta biktimek ez dakite noiz izango dira erasoaren gai. Gainera azkar asko mugitzen da eta, harra-

pakinak nekez itzurtzen zaizkie haren atzaparrei, oso animalia bizkorak izanda ere.

HABITATA: izaera geldikorra du bere banaketa-alde Palearktiko osoan. Fidelitasuna gordetzen die haitzarte malkartsuak dituzten baso eta mendialdeei, mila metroko altitudetik gorako mendietan bizitzera irits daitekeelarik. Leku horietan erraz aurkitzen ditu bere jardueran aritu ahal izateko behar dituen gordelekuak. Araban, esaterako, behe-altitudeko alde malkar eta menditsuetan, hau da, mendizerra ingurueta haitzarte eta sakanetan.

Landaretza artean ezkutaturik eta, oro har, harkaitz-horma haitzulo iritsezin basatietan kokaturik duen gordelekua, ehizan aritzeko uzten duenean, hegaldi gutxi batzuk baino ez ditu egiten, eta badoa planeatze-hegadan bere ehiza-lurralde zabalerantz. Ehiza-lurralde horrek 15 eta 25 kilometro karratuko azalera izan dezake, baina bere jarduerarik handiena gordelekuaren inguruetan burutzen du, hiru kilometro karratu hartzen dituen eremu batean. Ehiza-esparruaren azalera aldakorra izaten da, aurki daitezkeen harrapakinaren arabera.

HEDAPENA: Euskadiko baso guztietan, Bizkaiko mendebaldeko muturretik Jaizkibelerraino, bizi izan zen, antzina, Europako gaueko harrapariarik handiena. Gaur egun, ordea, gure zuhaitz-gordeleku zarratuetan, gure landaretza berdean, ia ez dago gaueko jaunaren presentziarik. Egiaztatu denez, 17 bikote habiagile daude gaur egun, horietako bat Bizkaia eta Kantabriaren arteko mugan, Bizkaian, nonbait, habia egiten duena. Bizkaian beste hiru bikote ikusi dira, habia non egiten duten jakin ez delarik. Gainerakoek Araban egiten dute habia. Ez da



arraroa espezie hau Bizkaian ikustea, heldu gabeak eta ezartzeko lurralde bila daudenak.

Nafarroan espeziearen nolabaiteko suspertze bat gertatu da, untxiaren mixomatosiak eragin zuen populazioaren beherakada nabarmenaren ondoren, untxia baita bere harrapariarik arruntena. Populazioen ezusteko hobekuntza horri esker, itxaropenerako argia piztu da. Itxaropen hori areagotzen da, berebat, hegazti batzuk Gipuzkoako lurraldean Aralar mendilerrotik eta Araban beste pasabide batzuetatik sartzen direlako.

Alabaina, harrapari hau bere populazio-kopuruan jasaten ari den galzoria eta atzerakada etengabea, gure basoetan ez ezik, Europa osoko basoetan ere gertatzen ari den zerbait da. Salbuespenez, kopuru ugariak da oraindik Iberiar penintsulako mendialde batzuetan. Bertan 2.000 bikote inguru bizi direla zenbatesten da; Europan, berriz, 4.500 eta 6.500 bitartean dago bikote-kopurua.

Ehiza ilegala, hegaztien salmenta klandestinoak, habiek jasaten dituzten arpilaketak, ibilgailuen harrapatzeak, kable elektrikoak eta basoen urripena dira espeziea bakantzerara eraman duten arrazoiak.

HONTZ ERTAINA

NOLA EZAGUTU?: udaberriaren hasieran, gautu baino lehentxeago, Euskal Herriko ongi iraundako azken basoetatik, hontza ertainek jaulkitzen dituzten soinu arraro eta kezkarriak entzun daitezke. Maitasunaren deia, "ju" ahul errepikakor hori da, udaberrian, hegazti partzialki migratzailer hauen presentzia adierazten duen bakarra; urtearen gainerakoan izugarri zuhurrak dira eta nekez ikus daitezke, bai beren kamuflaje bikainagatik, bai beren gordelekuak gauean soilik uzten dituztelako.

Bere ahaide nagusiaren, hau da, hontza handiaren miniaturazko kopia delarik, hontza ertainak (*Asio otus*), 200-380 gramorekin, hamar bidez txikiagoko pisua du, eta hark bezala, lumaje kriptikoaz horniturik dago, bi aurpegi-motots ditu, bere silueta urratu eta egunez oharkabe gertatzeko balagarriak. Begi bistan, gainerako gaueko hegaztiak baino zaluago eta lirainagoa dela dirudi.

BIOLOGIA: udaberrian hasten den ugalketa garaian, ilundu baino lehentxeago entzun daitezke, basoaren erdian, bikotekide bila dauden araldiko arrek jaulkitzen dituzten soinu arraro eta kezkarriak.

Eme bat hurbil egonez gero, erantzun egingo du segurasiki, eta orduan deiak ugaritu egingo dira, bikotearen harremana estutzen delarik. Arra, ekimena hartuta, bere kidearekin elkartzera hegan abiatu ondoren, batak eta besteak ekiten diote umatze-lurraldea zehatz-mehatz arakatzeari. Lurralde hori oso aldakorra da, 15 eta 70 hektarea bitartean egon daitekeena. Lurraldea mugatutakoan, bikotea sakonean ezagutzeko aritzen dira buru-belarri, eta bertan behera utzitako mika edo belearen habiaren bat aukeratzen dute habia egiteko, bereziki gogokoak baitzaizkie hauek eta zuhaitz-enborren zuloak.

Lekurik egokiena aukeratutakoan, ez dira egitura konplikatua egiteaz arduratzen, eta beren lumez eta, batzuetan, hostoez ere estaltzera mugatzen dira. Errunaldiko arrautza kopurua aldakorra da elikagaien ugaritasunaren arabera, baina batez



beste 3 eta 5 bitartean egon ohi dira, batzuetan 10etaraino ere iritsi daitezkeelarik, zuriak, ia biribilak eta batez beste 41 x 33 milimetroko tamaina dutela.

Lehen arrautza errutean hasten da inkubazio aldia, 26 eta 28 egun bitartean dirauela. Arrautzak batetik bestera ia bi eguneko tarte dagoela erruten dira, eta, beraz, lehen txitoaren tamaina azkenaren bi halako izan ohi da, txitoen tamaina-mailaketa ikusgarria gertatzen delarik. Egoera hori ezin asmatutakoa izango litzateke beste espezie batzuetan, txito txikiak azkenean hilko bailirateke, baina, kasu honetan, senidetasun eredugarriaz eramaten da txitaldiko txitoen artean, nagusiek ez baitituzte txikiak behin ere gogaitzen edo kanporatzen saiatzen. Bakarrik janaria urria denean hil ohi da gazte edo txikiena, ez baitu kide handiekin lehiatzerik, eta horiek azkarrago hartzen dute gurasoek eramandako janaria.

Jaiotzerakoan begiak itxita eta gorputza lumatxa fin zuriaz estalia agertzen dituzte. Sudurluze bat hurre-ratzen bada habiara, defentsako sistema berezi bat hartzen dute guztiek batera, lumajea harrotu egiten dute askoz ere handiagoa direla emateko, eta kriskitin-hotza egiten dute mokoaz, sudurluzea txunditu eta beldurtzeko.

Gurasoek, habiaren defentsaz arduratzeaz gainera, janari bilaketan aritzen dira. Ezustean harrapatzen dituzte mota guztietako karraskariak, lursaguak eta satitsuak, beren elikaduraren %90 osatzen dutenak.

Horretarako ikusmena edo soilik entzumen erabiltzen dute, gai baitira, izan ere, belar geruza mardul baten azpian ezkutu eta geldirik karraska dagoen sagu bat harrapatzeko, saguak jaulkitzen duen hots hutsagatik.

Hartutako harrapakinak habiara eraman ondoren, zati-zati egiten dira 10 bizi-egun baino gutxiagoko txitoei jaten emateko badira. Geroago, txitoek gorputza bigarren lumatxa grisaz estali eta gero, gauza dira oso-osorik irensteko, eta halakoa da beren jaletasuna, habia utzi ere egiten dutela gurasoei harrapakinak kentzeko.

Txitoek 25 egun dituztela uzten dute habia, eta oraindik hegan egiteko gauza ez diren arren, habia inguruko adar artean paseatzen dira, beren atzapar eta moko indartsuez baliatuta.

Lumajea orduan gurasoenaren oso antzerakoa da, batzuk besteengandik nekez bereizten direlarik.

Sarritan ibilaldiak egiten dituzte taldean, eta gazteek nagusien urratsei jarraitzen diete. Batzuetan, ikusnahiaz, lurretik ere ibiltzen dira, erreskadan ibiltzen dira enborren inguruan, beti ere martxa-hurrenkera gordez. Garai honetan sarri ikusi ohi da irudi samur bat: hontza ertainen txitaldi bat, hitzez hitz bata besteari batuta, handienetik txikienera, adar batean. Denbora guzti honetan, emeak, arraren laguntzaz, hauek ematen dieten elikagaien beharrea dira, eta, apurka-apurka, hontza gazte eta trebatu gabeek ehizan egiten ikasteari ekiten diote, karraskari berrien kumaldi halaber dorpe eta trebatu gabeaz lagunduta.

Harrigarriro, familiaren harremana ez da hausten gazteak hegan egiteko gauza direnean. Uste denez, hazkuntza bitartean sendotzen diren lotura handiengatik eta karraskarien banaketa irregularrengatik, hontza ertainek jokaera-ezaugarri eksklusibo bat agertzen dute: neguan taldeetan bizitzeko joera. Urtaro txar horretan, harrapari hauen hain-



bat hamarreko biltzen dira zuhaitz gutxi batzuetan, edo bakar batean, eta bertan ematen dute elkarrekin eguneko atsedendia. Garai honetan, Europako iparraldeko populazioek mediterraneoko aldeetara migratzen dute, baina gure basoetan bizi direnak, goi-altitudeko lekuetatik jaisten dira tenperatura epelagoen bila. Karraskariak urri diren urtaro honetan, beren dieta zabaltzen dute hegazti txikiak ere jaten dituztelarik.

ELIKADURA: saguak, lursaguak eta satitsuak.

HABITATA: habitat paregabatzat dituzte pago, haritz edo gaitzainondoen baso hostogalkorrak, eta argiuneak dituzten edo zaskardi eta espazio irekietatik hurbil dauden pinudiak ere.

HEDAPENA: duela urte gutxi arte oso ugaria zen ia bere banaketa-alde osoan. Alde hori, mota honetako animalien artean zabalenetakoa da, Eurasia, Iparramerika eta Afrikako iparraldeko lurralde epel eta mediterranearrak biltzen baititu. Baina, pestizida, herbizida eta gainerako produktu fitosanitarioek, urripen nabarmena eragin dute espezie honen gain.

Euskadin habiagintza-tasa baxua azaltzen dute, hiru lurraldeetan bizi izan arren. Bikote bakar batzuek baino ez dute habiarik egiten Enkarterri eskualdeko basoetan, Arabako hegoaldean eta Gipuzkoan. Ez da zehatz ezagutzen populazioaren tamaina, beren jokaera zuhurragatik.

Iberiar penintsulan ere ez dira gehiegi ikusten, beste europar herri batzuetan baino are gutxiago. Hori gerta daiteke, nonbait, beren harrapakin nagusi ezagatik, hots, landa-lursagu ezagatik.

APO HONTZA, IKUSEZINA ETA FIDAKORRA

NOLA EZAGUTU?: apo-hontza dugu kamuflajearen benetako maisua, bere lumaje arre-grisak edo marmolkarak modu paregabean imitatzen baitu bizi deneko zuhaitzen enbor eta azalen itxura, guztiz oharkabe gertatzen delarik. Udaberriko gauetan, arraren kantu etengabe eta konpasatuak soilik ematen du haren presentziaren berri.

Kantuaren nota batetik bestera 2 eta 4 segundo bitarteko pausaldia egiten du. Buruaren albo bietan bi luma-moto luze gailentzen zaizkio, hontza handiari bezala, eta zata arruntaren edo lepizuliaren kolore antzekoa du.

Ornitologoaren iritziz, antz hori gertatzen da eboluzio konbergentea izeneko gertakari arraro batengatik. Horrela, genetika aldetik elkarrengandik oso urrunak diren animaliek, beren eboluzioan zehar, kanpo-ezaugarri berdintsuak hartzen dituzte, beren biziraupena beharrian eta giro-faktore berberengatik baldintzaturik baitago, esaterako, harrapariengandik ihes egin beharra, etab.

BIOLOGIA: gainerako gaueko harrapariak bezala, pertsekuziora moldaturiko anatomia du, eta harrapakinak atzematen ditu iluntasunean, bai bere hegada isil eta oharkabeari esker, bai bere pertzepzio organoen ezaugarriari esker. Entzumen zoli-zolia du, izugarri garatua, eta bere begi handitzarrek ikusmen bikaina eskaintze diote, betzuloetan sartu-sarturik dauden arren. Begien ibilgetasun horren ondorioz, ikusmen-eremu meharra du, ez baita 180 gradutara iristen, gaueko harrapariena baino txikiagoa izanik. Hori horrela ere, hegazti hauen anatomia bereziak gainezka emendatzen du ikusmen akats hori, 270 gradutaraino biratu baitezake burua, mugimendu horretan gorputzak parterik izan gabe.

Apo-hontza asko bikotean bizi izaten dira bizitza osoan, elkarrekin pausatutako eta bata besteari lumajea mokokatuz, agian gozamenezkoak diren txistu ahulak jaulkitzen dituztelarik. Jarduera horrek, harrapakin ehizatu berrien eskaintzarekin edo erakarpen-dei indartsuekin, sendotu egiten du bikotearen lotura.

Udaberriaren hasiera aldean, itzultzen da apo-hontza bere neguko afrikar aldeetatik, Ekuatorearen iparraldetik, alegia, gure basoetan bikotea lortzeko prest. Oraindik lagunik ez duten arrek kantu ausartekin erakartzen dituzte eme bakarriak, aldi berean inguruetatik lehiaztaileak uxatzen dituztelarik. Emeek ere ekiten diote kantuari arrek egiten duten antzera, baina haren intentsitatea aldatu egiten da bikotea lortzen dutenean.

Bikotea eratuta, apo-hontza



txikiak hutsune batzuk erakusten dizkio bere kideari, habia egiteko egokiak, hark bat aukera dezan, hasieran atsedentleku gisa erabiliko dutena. Oro har, emeek zuhaitzetako hutsuneak nahiago dituzte, bereziki huntza dutenak, baina batzuetan beste hegazti batzuen habia hutsak edo murrut zaharretako hutsuneak ere aukeratzen dituzte. Bikotearen lotura sendotu egiten da umaldiak dirauen bitartean, erakarpen-deiak eta lumajea elkarri konpontzei ekiten diote.

Bikote guztiak aritzen dira jarduera horretan.

Harrapari hauek bigamoak izan ez ohi diren arren, noiz behinka egiaztatu denez, bi emerekin ugaltzen dira, aldi berean bi txitaldiri eutsi behar diotelarik. Baina, normalean, bikote bakoitza errunaldi batez arduratzen da, gure basoetan apirilaren amaieratik egiten dutena.

Emeak, hiru eta sei arrautza bitartean erruten ditu, batetik bestera bi eguneko tartea utziz. Txitaldiak dirauen 25 egunetan, emea, arrautza txikien ondoan egoten da. Bitartean, arrak,



harrapariak habiatik uxatzen ditu, muxarrak, erbinudeak, urtxintxak edo lepahoriak, eta janaria eramaten du eme eta txitoentzat, hauek bi aste eta erdi eduki arte.

Normalean, nahikoa du gauean hiru edo lau sagu harrapatzearekin, familia txikiari jaten emateko.

Emea amaren eredu bilakatzen da hazkuntza aldian, txitoak zaintzeaz eta, arra ez dagoenean, defendatzeaz arduratuz. Jaio berriek lehenengo egunetik entzumena eta, bereziki, usaimena erabiltzen dute, ikusmena hirugarren egunetik aurrera erabiltzen hasten direlarik. Lehenengo 18 bizi-egunetan ama da elikatzeaz arduratzen dena. Kumeak, jaiozerakoan, lumatxa zuri, leun eta zetatsu batez estalita daude; lumatxa hori beste gaueko harrapari batzuenaren antzerakoa da, eta gurasoenaren antzerako jantzi bilakatuko da habia utzi baino lehenago. Lumajearen tonuera, hasieran, gris zilarra bada ere, animalia hazten den neurrian arre bilakatu egingo da. Hilabete eta erdi betetzean helduaren lumajea edukiko du. Gazteen jokaera ehiztaria 50 egunen buruan erakusten da. Normalean, ingurua arakutzen dute harrapakin bila talaia garai batetik. Bat antzematean, atzaparrak aurrerantz irekita daramatzatela haiengana bideratzen dira hauek oldartu nahian. Harrapakinak ehizatu ondoren, pausalekura itzultzen dira eta hauek jateari ekiten diote.

Udazkena hasita, hazkuntza amaitu eta txitoak bere buruaren jabe direnean, gure apo-hontzek Espainiako hegoaldeko, Balear uharteetako eta Mediterraneoko beste uharte batzuetako -Kreta, Grezia edo Malta- hegazti geldikorrek ez bezala, migrazioari ekiten diote. Ez dira gure basoetara itzultzen hurrengo urteko martxo edo apirilera arte, berriro ere habia prestatu eta txitoak aurrera ateratzeko. Hegaztiaren heldutasun sexuala zortzi hilabete dituela iristen da.

ELIKADURA: eguzkiaren argia gogaikarri ez bazaio ere, nekez irteten da egunean ehizara. Intsektuak ditu bere elikaduraren %90en osagai, hala nola, gaueko tximeletak, matxinsaltoak, erlastarrak, kakalardoak edo ipurtsardeak. Inoizka, txoritxoak, sugandilak edo sagutxoak ere jaten ditu.

Harrapakinak jan ondoren, egagropilo tipikoak goitikatzen ditu. Bi zentimetroko luzera eta zentimetro bateko zabalera duten bola antzekoak egiten dituzte, digeritu ez dituen oskol hondakinak, hezurtxoak edo lumak biltzen dituztenak. Bola hauen kolorea aldakorra da jan dutenaren arabera, eta lehortzen direnean erraz hausten dira. Normalean, atsedentzuloetan uzten dituzte.

HABITATA: harrapari migratzaile hau goiztiarra da euskal mendietara iristen. Izan ere, martxoaren erdi aldetik entzun daiteke haren kantua, txantxikuarena



gogorarazten duen ahots erritmiko batean oinarritua.

Hostogalkorren zuhaitziak edo zuhaitz-lerroak dituzten zelaiak aukeratu ohi ditu bizitokitatzat, enborretan ageri diren hutsuneetan ezkutatzeko, baita mendian huts utzitako baserri zaharrak ere.

HEDAPENA: zabal banaturik dago eskualde Palearktiko, Etiopiar eta Ekialdekoan. Horren ondorioz, autore batzuek

hamabi apo-hontza arraza edo subespezie baino gehiago sailkatu izan dituzte, tamaina, lumajearen kolorea eta urtarokotasunaren arabera bereizten direnak. Alabaina, zoologoak ez dira irizpide bakarrek sailkapen horien ingurua. Batzuen ustez, gure basoetan eta Iberiar penintsulan, mediterraneo aldean, bizi den harraparia, Europako gainerakoen bestelakoa den bitartean, beste hainbesteren ustez, animalia horiek ez dute beraien arteko diferentzia nabarmenik erakusten, ez behintzat, subespezie ezberdintzat jotzeko modukorik. Hiru Lurralde Historikoetan ageri bada, Araban da ugari, Ebroko araretik Conchas de Harora doan aldean. Nahiko arrunta da Donostia eta Hondarribia bitarteko kostaldeko baso eta landazabalean ere. Ez da ezagutzen Euskadin duen populazioa.



MOZOLO ARRUNTA, FIDELTASUNAREN EREDU

NOLA EZAGUTU?: hontza txiki honen tamaina ukabila baino handixeagoa da, 20 zentimetro inguru, hego-luzera 50 zentimetro ingurukoa da, eta bere pisua 200 gramokoa.

BIOLOGIA: mozoloa dugu, gure basoetan, gaueko harraparietatik ohitura gautarrenak dituen. Askotan ikus daiteke, udaberrian bereziki, egun argian, zuhaitzen baten adarrean edo murr zaharretako harrien gainean pausatua, bere kantua beste txori batuenarekin nahasian. Hori gertatzen denean, inguruetan umatzen duten hegaztiak bildu egiten dira beren garrasiekin zirikatzen. Zoritxarrez, portera horretaz baliatu dira ezkutuko ehiztariak. Horrela, hagaxkak jartzen dituzte, likaz bustiak, apeu-mozolo artifizial edo diseatu baten inguruan, eta zain geratzen dira txoritxoak, inbasorea kanporatzeko haserre, hagaxken gainean pausatu eta itsatsita geratu arte.

Harrapari hauek bikotean bizi, eta bizitza osorako kolonizatzen dute beren umatze-lurraldea. Habia, normalean zuhaitz baten zuloan, haitzarteko arrailetan edo aurri zaharretan kokatua, animalia biziaren bizialdi osoan erabilia izango da. Gutxitan egiten dute habia lurrean.

Araldia hastean, neguaren amaieran, arrak kanta-tezari ekiten dio, txio anitz eta melodikoak abestuz, aldi berean habia egiten duen leheneziko umatzea bada, bestela, aurreko urtekoa konpontzen du. Errunaldia apirilean gertatzen da, normalean, lau edo bost arrautzakoa izanik, baina zazpikoa izatera irits daiteke. Arrautzak zuriak eta oskol zimurtsu samarrekoak izaten dira.

Gainerako gaueko harraparien kasuan ez bezala, txitaldia ez da lehen arrautza ipintzean hasten, azkenekoa errun arte atzeratzen da. Gehienetan emea da arrautzak



berotzeaz arduratzen dena, arrak elikatu egiten dituen bitartean.

Txitoek, jaiotzerakoan, lumatxa zuri zetatsua dute, egun batzuen buruan galtzen dutena, helduenaren antzerako lumajea hartuz. Lehenengo bizi-egunetan emeak ematen die jaten arrak dakartzan harrapakinekin. Bi aste igarota, bikotea elkartu egiten da berritara, ehizara joateko. Txitoak habian geratzen dira hogeita hamabost egunez, gutxi gorabehera. Habia utzi eta hurrengo hamabostaldian, gurasoek elikatzen jarraitzen dituzte oraindik ere beren kontura ehizan aritzeko gauza ez direlako. Elikagaiak lortzeko behar adinako indar eta trebetasuna dutenean, gurasoak utzi eta basoan barrena barreiatzen dira lurralde bila. Emantzipatu berriak direla, mozolo gazteek hilkortasun handia jasaten dute, tentsio altuko kableetan pausatzen joeragatik eta errepedeetan kolpaturiko intsektuez elikatzen joateko ohituragatik.

Hurrengo negu osoan, bikotea batera egongo da, eta kideetako bat hiltzen bada soilik bilatuko du besteak ordezkia.

Mozoloak soinu ugari jaulkitzen ditu, emoziozko egoera anitzek adierazteko, katuek jaulkitzen duten soinu gogorazten duten miao indargeetatik txistu zara-

tatsuetara.

ELIKADURA: batzuetan egun argiz ere egiten du ehizan, egunsenti eta ilunsentian batez ere. Geldirik ematen du denbora asko, edozein gaindegitan pausatutik. Bertatik adi-adi ingurua behatu eta harrapakinak hauteman egiten ditu, hala nola; kilkirrak, matxinsaltoak, koleopteroak eta tximeletak, hegan harrapatzen dituztenak. Batzuetan, altuera txikian egiten du hegan bere ehiza-lurraldearen gainetik edo pausaleku batetik bestera joanez.

Intsektuek osatzen dute batez ere haren elikadura. Kalkulatzen denez, bere dietaren bi herenak, baina batzuetan basosaguak, lursaguak, satitsuak eta, inoizka, sugandilak ere harrapatzen ditu. Beste batzuetan berriz, are erbinudeak, arratoiak eta, mediterraneo aldeetan, untxikumeak ere harrapatu izan ohi ditu.

Dena dela bere elikadura aldakorra da, zein banaketa-alde den eta harrapakinaren ugaritasunaren arabera; horrela, Europako erdialdean bizi diren hegaztiak karraskariak dituzte beren dietaren oinarri, %50eraino iritsiz, eta zelai mediterraneoetan, Espainiako hegoaldean bizi direnek, ordea, intsektuak jaten dituzte batez ere, dietaren %90eraino iritsiz, hauen ugaritasuna dela eta.

Elikaduraren bereizgarria du, gainerako gaueko harraparien artean guztiz ezohikoa dena, lur-zizareak ere gustukoak dituela, are umaldian ere txitoak elikatzen dituela anelido horiekin.

Mozolo batzuek metatu ere egiten dituzte harrapakinak, ugari diren hiletan, zuhaitzetako zuloetan, benetako jantokiak egiten dituztela.

Orain, gainerako gaueko harrapari bezala, harrapakinak digeritu ondoren, goitikatu egiten ditu larru, luma edo hezurtxoen hondakinak eta intsektuen oskol kitinatsuak, hiru edo lau zentimetro luze eta bi zentimetro zabaleko pilotetan. Pilota horiek ezagutarazten dute haren presentzia, pausalekuen oinetan metatzen baitira.



HEDAPENA: lumaje arre argitsua eta zuriz pikardatua du, baita urre koloreko begi handiak ere. Erregio Palearktikoko eremu mediterraneo epeletan eta desertuzkoetan banaturik dago. Europari dagokionez, Iberiar penintsulako hegoalde-tik Danimarkaraino eta Baltikoko itsasbazterreko hegoalderaino hedatzen da. Asian eta Afrikako mendebalean ere ageri delarik.

Bere banaketa-alde zabalagatik ikus daitekeenez, ez da espezie exigentea, baldintza ekologiko eta klimatiko ezberdinetan bizitzera moldatu daiteke, horren ondorioz populazio ugaria du. Euskadin, ordea, ez du populazio handirik, baina leku zehatzetan populazio-dentsitate garrantzitsuetara irits daiteke. Irregularlari banaturik ageri da hiru lurraldeetan. Bizkaian, egindako azterlan baten arabera, 250 bikote zentsatu ziren. Hala ere, ezezaguna da Euskadiko populazio-kopurua. Arabako Ebroko haraneko lur baxu eta irekietan da ugariena. Izaera geldikorreko harrapari honek, bere banaketa-eremu gehienguan bezala, gure basoetan ere habitat anitzetan bizi da. Hala nola, sastrakadiz hornitutako espazio ireki edo argiune ugari-ko basotxoak. Urubiak ez bezala, baso zarratu eta zuhaitz ugarietatik ihes egiten du.

Erteuropar eskualde hotz edo menditsuetan bizi diren hegaztiak ere ez dute migratzen. Nahikoa dute neguan arantara jaitsi edo oso urrunak ez diren erregio biguinagotara aldatzerarekin.

URUBIA, ILUNTASUNAREN JAUNA

NOLA EZAGUTU?: espezie honek badu xehetasun bitxi bat: luma bakoitzaren oinean dauden muskuluek bide ematen diote aurpegiera sarri aldatu eta ezaugarri bereziak hartzeko, araldian batez ere. Haserretua edo zaputzak hartua egonez gero, aurpegiko goi-lumak altxatzen ditu eta behekoak jaisten ditu begiak estaltzeko, haserre aurpegi benetan barregarria hartzen duelarik. Bikoteko kideek garondo eta belarri-aldea leundu eta harraskatzen diote, askotan, batak besteari.

BIOLOGIA: Ilunabarra basora iritsi eta eguneko azken argiek ilargiaren argiari lekua uzten diotenean, ekiten dio urubiak bere ehiza-jarduerari, zerupesn ikusezin bihurturik. Espezie gutxi fidatzen dira beren kamuflaiaz urubia bezala, ez baitu gauari itxaron behar oharkabe gertatzeko. Egunean, bizi den zuhaitzen enborrei ibilge atxikita dagoenean, izugarri zaila da hautematea. Ez da, beraz, harritzekoa gure basoetan gutxien ikaratzen diren hegaztietakoa bada eta behatzaileei distantzia laburretara hurbiltzen uzten badie, batzuetan bi metrotara, hegan abiatu gabe. Baina portaera ustetsu hori fidagaitz eta erasokor bihurtzen da habiagintzako garaian, eta orduan ez du habiara ezertxo ere sudurluzerik hurreratzen uzten.

Oso izaera lurraldekoa du, urte osoan entzun daiteke bere ulu zorrotza. Bere kantu



setatsuz lurraldearen mugak markatu nahi ditu, beste arrengandik bereizteko. Kantu hori nabarmenki areagotzen da ezteigaraia iristean.

Gaueko harrapari hau, neguko egun hotz baina argitsueta, mozoloz bezala, bere gordelekua ren sarreran eguzkitara jarri ohi dena, sendo eta indartsuagoa da hontzak bere senideak baino; halaber, begi beltzak ditu laranja barik, eta ez du buru gainean motots handirik. Horregatik, aurpegi biribilduagoa agertzen du. Gorputza estaltzen dion lumajea arre zein grisa izan daiteke, azkeneko hori arraroagoa delarik.

Mugimendu geldo eta astunak izaten ditu beti, baina bere hegada arina da, nolabait, hegoei indarrez eragiten baitie. Hala ere, modu kulunkarian eta geldotasunez lekualdatzen da. Bere ahotsa, barre isekariaren antza duena, garrasitsuua, ez da gizakiaren belarrietarako atsegina.

Basoko zuhaitzik zaharrenak, goroldioz estalirik, azala erdi usteldurik eta zuloez beterik daudenak dira bikotearentzat gogokoenak.

Otsailaren gau hotzetan gertatzen da hegazti hauen araldia, eta gaueko isila urratzen dute beren barre-algara baldresekin. Osaturik daude barre-algara horiek soinu txistukari eta oiherlats txandakatu, eta euria edo haizea dagoenean soilik isiltzen dira, sekulan ere ez, ordea, hotzarengatik, tenperatura guztiz baxua izanda ere. Kantu ahaltsuak, hainbat kilometrotara entzun daitezkeenak, urubien jabetza iragaritzen die etsaiei eta haien presentzia jakinarazten dio emeari. Erakargarri horrek asaldatu egiten ditu arrak eta emeak, eta zuhaitz hutsik aurkitzen ez dutenak abiatu egiten dira bihitegieta, elizetako dorreetan, basoan bakandutako herri txikietako teilatueta habe artean edo beleen habietan habia egitera. Dena da



baliagarri urubiaren bakartasuna hausteko, bere ezteiei ekiteko.

Eztei-jarduketa guztiz sinplea da: arra mugatu egiten da bere kideari opari txikiak eramatera, eta gero lumajea leuntzen diote elkarri. Azkenik, arra arduratzen da bikoteak okupatuko duen lurraldea mugatzeaz, edo-

zein sudurluzeri aurka egiten diola, eta, bitartean, emeak errunaldia egiteko lekua aukeratzen du. Hegazti hauek habia egokia aurkitzen badute eutsi egiten diote hainbat urtetan, eta bertara joaten dira udaberri bakoitzean. Ernaldutakoan, emeak arrautzak erruten ditu, bat edo bi egunez behin, eta jarraian berak bakarrik inkubatzeari ekiten dio. Arrautzen kopurua harrapakinen ugaritasun edo urritasunaren arabera da; horrela, habia inguruetan karraskari ugari egonez gero, txitaldian zortzi harrapari berri sortu ohi dira, eta emeak berak bakarrik



txitatzen ditu hilabetez. Alabaina, hiru eta bost arrautza inguru izaten da ohikoena.

Arrautzek 47 milimetro inguruko diametroa izaten dute, eta bertatik jaiotzen dira txitoak, lumatxa zuri batez estaliak, haien hotza kentzeko balio ez duen arren. Emea haien ondoan geratzen da bi astean, beroa ematen diela, harik eta tenperatura hotzetatik, kokorikaturik egonez gero, babestuko dituen gazte-lumajea garatzen dutenera arte.

Une horrez geroztik, emeak lagun egiten dio bere kideari, gauean, txito oihukariei jaten emateko harrapakinak ehizatzeraz, hauek beren urdailak hutsik daudela adierazten baitute oihu gogor arrenkarietara. Egunean, berriz, zaintzaile geratzen da habiaren sarreran. Lortutako harrapakinak aski ez badira haiek asetzeko, emeak jana kentzen die txito berankorrenei eta aurrenik jaio zirenen elikadura indartzen du. Hala, jaiotako guztietatik bat bakarrik iritsi ohi da heldutasunera. Espezie oso emankorra ez bada ere, eta urtean errunaldi bakarra egiten duen arren, populazioa kota egonkorretan mantentzea lortzen du bere bizitza-luzerari esker.

Jaio eta lau aste igarota, txitoek, oraindik hegan egiten ez dakitela, habiatik kanpora irteetan hasten dira, habia benetako zabortege bilakaturik dagoela. Bere atzapar ahaltsu eta moko indartsuei esker, zuhaitzaren barne hutsunetik gora igotzen ausartzen dira, metro askotako altuera bateraino. Beren pisuko beste edozein hegaztik baino bi hilabete gehiago erabiliko dute hegan

egiten ikasteko, garai honetan gurasoak araldian baino are erasokorrago bihurtzen dira, eta habiara hurreratzen den edozein sudurluzeri erasotzen diote, baita gizakiari ere, ileak eta begiak bilatzen dizkiotela suminduraz mokokatzeko. Hori dela eta, itxita egin ohi dira haien habialekueetatik igarotzen diren parke naturaletako zidorrak, jendea ibil ez dadin.

Hurrengo udarako, txitoek badituzte bi hilabete eta hegan egiteko gai dira; orduan, helduek lehen gaueko ehiza-ikasketak emateari ekiten diote, beste hiru hilabetetan hobetuko direnak. Janaria beren kabuz bilatzeko gauza direnean, zabaldu egiten dira basoan lurralde propioa bilatzeko; bestela, gurasoak eurak izango dira beren feudotik kanporatzen dituztenak. Hazkuntza amaituta, bikoteko kideek beren izaera lagunkoira berreskuratzen dute eta bizimodu bakartira itzultzen dira.



ELIKADURA: ehiztari ausarta dugu urubia, eta, bere atzapparren zabalari esker, arratoi edo uso baten tamainako animaliak harrapa ditzake. Saguek, lursaguek, satitsuek eta intsektuek osatzen dute haren dieta, udan bereziki. Neguan, karraskariak letargiatzen direnean, hegaztiei ere erasotzen diete, esaterako, zozoei eta Araba zozoei, eta narraz eramaten ditu haien oihuminei jaramonik egin gabe. Gauean harrapatzeko, haien lolekuen gainetik aritzen da arakaten, eta txori horiek, logale, hegan abiatzen direnean, erraz atzematen ditu airean. "Especialista" batzuk are usategietan ere sartzen dira gauean eta usoak harrapatzen. Narrastiak eta urlehorrak izaten zaizkio gogoko janari, eta harrapatzen ditu bere hegada isilari esker; izan ere, bere hegadak ez du uhin laburretik ultrasoinura doan hots-gama, bere biktimek garbi entzungo luketena.

HABITATA: laborantza-lurrak, landazabalak eta hostozabal galkorren basoak.

HEDAPENA: espezie honen banaketa-aldean sartzen dira ia Europa osoa, Mediterraneotik Eskandinaviako hegoaldera, Afrikako iparralde, Asia txikia, Iran, mendebaleko Siberia, Turkestan, Himalaia, Txina eta Korea.

Zabal banaturik dauden espezie guztiek bezala, hainbat subespezie ditu urubiak ere. Euskadin eta Iberiar penintsulan subespezie bat bizi da, Frantziako hegoaldeetik ere hedatzen dena. Subespezie hori, iparreuropar urubien populazio batzuk ez bezala, geldiko-



rra da, ez baitu neguan migratzen, eta urte osoan geratzen da gurekin. Iberiar urubia da (*Strix aluco sylvatica*), eta laborantza-lurrak kolonizatu ditu, baina landazabalak eta hostozabal galkorren basoak nahiago ditu, habia egiten duela zuhaitz zaharretako kofaguneetan. Horregatik, gure basoetan urri da mediterraneo aldean, Errioxa eta arabar lautadan, arrunt dela soilik Kantabriako mendizerrako hegoaldeko isurialdean. Ugari da, ordea, Bizkaiko eta Gipuzkoako atlantiar isurialdean eta kostaldeko basoetan. Egiatzatua da habia egin duela gure parke natural guztietan. Harrapari ugari honen populazioa ezezaguna da Euskadin, baina Bizkaiko Lurraldean egindako azterlan batzuek 1.000 bikote inguru egon daitezkeela ematen dute aditzera.

HONTZA ZURIA, GAUEKO ERREGEA

NOLA EZAGUTU?: kondaira entzungarrien protagonista, Lamia eta sorginen lagun banaezina, eta sineskeria ezagun kontaezinen objektua, sarri askotan izaki ilun eta madarikatu iritzi zaio, herioari hertsiki lotua. Hegazti gutxi daude hontzaren laino misteriotsuaz inguratutik. Gaueko hegaldi leun eta isila, hosto baten eroria bezalakoa; bere ulu nahastezina, gaueko mundu beldurgarriarekin erlazonaturiko konnotazio ilunez bete; bere aurpegi zurbil bihotz-antzekoa, ilargiaren islapen magikoaren pean zilar-distirez estaltzen dena, eta ganbaretan eta baselizetako kanpandorretan egokiera bilatzeko duen joera, lagungarri izan dira gizakiak bere beldurraren objektu ilunarekiko gaitziriztea areagotzen.



Baina egun-argian ezustean harrapatuta, hegazti izugarri eder bat ikus daiteke, beldurrezko iluntasunari lotuegi dagoen sineskeriazko ikara sortzen duen lumadun animalia ilunbetsuarekin batere antzik ez duena.

Hegazti honen lumaje dotore eta delikatu kolore zuri edo krema orbaingabe zoragarria du, eurrez pikardatua sabel eta papar aldean. Hegoak eta bizkaraldea urre-gorritak dira, grisa ere badutela, gutxi asko, tonu gris edo gorritzko izpilez bete.



Gauaren lagun min eta iluntasunaren iragarleei elizetako lanparetako olio edatea edo kodaina-anderearen berragerpena izatea egotzi zaie, baina, egia esan, karraskarien ehiztari bikainak dira, eta gizakia babesten dute nahigabeko baina betiko lagun horietatik.

BIOLOGIA: bost kontinenteetan bizi den animalia kosmopolita hau ez da Europa eta Ipar Amerikako lurralde hotzetan, Zeelanda Berrian eta Asiako ekialdean bakarrik agertzen, dirudienez, espezie hau klima epeletan sortu zelako. Horrela, bere eboluzioaren historian zehar latitude hotzagoak kolonizatu baditu ere, ez du tenperatura baxuetara ohitzerik izan.

Europako erdialdeko leku hotzetan bizi diren hontza zuriek hilkortasun handia jasaten dute neguak bereziki zakarrak izan eta elurak zorua estaltzen duenean, ez baitute janaria bilatzerik. Egoera horren kontrako babesik garatu ez dutenez gero, beren organismoa ez da gantzezko elikagai-erreserbak metatzeko gauza janari ugaria dagoen garaietan. Gainera, hontza zuri gehienek ez ohi dute migrazioa eta urrunerako desplazamendurik egin, eta, beraz, ez dute klima epelegoko lurraldeetara iristerik. Hori horrela, eta, bizitzeko, gainerako gaueko harrapari europarrek baino askoz

ere gehiago jan beharra duela, hontza zuria sarri hiltzen da goseak jota.


Hegazti hauen izaera geldikorra dela eta, eskualde-aldaketak baino ez dituzte egiten. Dena dela, hegazti helduak dira geldikorrekin, gazteek bizileku eta lurraldea bilatu beharra baitute.

Eguna emateko gordeleku batean ezartzeko orduan, hontza zuriak leku lasai, isil eta iluna bilatzen du. Gehienera, argi-itzal txiki bat onartzen du, bere atsedenera gogaikarria ez dena, ez baitu argia jasaterik. Behin bere bizilekua aukeratu ondoren, hainbat urtetan bizi daiteke bertan.

Egunez, pausaturik dagoen bitartean, gorputzari tente eusten dio, lumajea hari ondo batuta, begiak erdi itxita eta aurpegiko lumak lazuta dituela, aurpegiak bihotz-forma hartzen duela.

Gorputzaren kulunkada txiki eta ia ohartezin, erritmiko eta konpasatuek, erakusten dituzte haren arnasketa mugimenduak.

Ilunabarrean, bat-batean aldatzen zaizkio jarrera eta itxura. Ehizarako ordua da. Fantasma zuri baten antzean, isil osoan uzten du bere atsedenlekua eta abiatzen da hegan zelaletarantz. Sarritan, hegaka egon ohi da lurretik altuera txikian, hegoak astindu-



ta, aldea arakatu eta harrapakinen baten edozein mugimenduz ohartzeko.

Gaueko gainerako harrapariak bezala, gauza da bere biktimak iluntasun osoenean aurkitu eta atzemateko, haiek jaulkitzen duten hotsaz gidatuta. Esperimentuak egin dira hegazti hauekin argi-izpi txikien ere gabeko geletan; eta horien bitartez, hostoez beteriko zolan sagu bat jaregin da, harien ehizarako gaitasun harrigarria erakutsi zen.

Harrapari honek soinu anitz jaulkitzen ditu, hala nola, garrasiak, txistadak, kurrunkak eta urrumak. Ezagunen eta ohikoenak dira zenbait segundotan jaulkitzen dituen "sstxtxtx" txistadak edo araldian bereizgarri zaizkion kurrunkak.

Ugalketa

Martxoaren hasieran sartzen dira hontza zuriak araldian, eta arrek kurrunkak gogorarazten dizkiguten hots etengabeak jaulkitzen dituzte, eta, aldi berean, emeak limurtzen dituzte harrapakin ugari eramaten dizkietela, askotan, gehiegi direlako, metatu egiten direnak. Hegazti hauek ez dute habiarik egiten. Ganbara batean edo zuhaitz baten



kofagunean egagropilo multzo baten ganean erruten dituzte arrautzak, besterik gabe. Arrautza kopurua 4 eta 8 bitartean egon ohi da, baina 11raino irits daitezke, janari ugari ekoizten.

Emeak hartzen du inkubazio prozesu osoa egitearen ardura, 30 eta 40 egun bitartean irauten duena, arak elikatzen duela bitartean. Inoiz gutxitan uzten du habia. Arrautzen eklosioa gertatzen denean ageri dira hontza zuriz gazteak, lumatxa zuriz eta urri batez estaliak. Lumatxa hori bi asteren buruan ordezkatzeko dute beste lumatxa usuago, luzeago eta lurkara batez. Lumaje honi eusten diote txitoek 40 egun eduki arte; orduan, helduen berezko eta betiko lumajeaz ordezkatzeko dute.

Hontza zuria ditugu egundoko gurasoak, kumeei elikagai ugari ematen dietenak. Sarritan, harrapakinak metatu egiten dira etzalekuan, usteltzeraino iristen direla; etzalekuak, beraz, kiratsa bota ohi du, oro har. Urte urrietan, txito ahulenak hiltzen direnean, gurasoek zati-zati egiten dituzte eta gainerako ondorengoei ematen dizkiete jateko.

Gaueko hegazti harrapari guztiak bezala, hazkuntza geldokiak diren arren, hegan egiteko gauza dira txitoak 70 edo 80 egunetan, ondo elikatuta egonez gero; baina etxe inguruetan geratzen dira beste astebete edo bitan. Gero, independizatu egiten dira eta hedapen erratu samar bati ekiten diote, ezarri ahal izateko adina elikagai duen leku baten bila.

Berezko heriotza-tasa altua

Egiaztatu denez, altua da hontza zurien berezko heriotza-tasa, eta beren batez besteko bizialdia gainerako gaueko harrapariena baino txikiagoa da -modu nabarmenagoan egiaztatu da Europako erdialde eta iparraldean, mediterraneo aldean baino-. Hilkortasun altu hori konpentsatzen du espezieak ugalketa-tasa handi batez, askoz ere gehiago direla emeak



egiten dituen erruteak nahiz bizirik dirauten txitoen kopurua, antzeko espezieenak baino. Horrela, urte faboragarrietan, bi txitaldi egiten dituzte. Bigarrenak ekainetik abuztura bitartean gertatzen da, eta txitoak azaro aldera independizatzeko dira. Beraz, bederatzitaraino iristen dira bikote batek aurrera ateratzeko txitoak, hurrengo udaberrian ugaltzeko gauza izango direnak.

ELIKADURA: elikadura aldatkorra du urtaroren arabera eta leku batzuetatik bestetara, baina, oro har, gizakiaren betiko lagunak ditu oinarri, %70eraino, hots, karraskariak, arratoiak, saguak, lursaguak eta satitsuak. Hauxe dugu hontza zuria gurekin bizitzera moldatu izanaren arrazoiak bat. Bere dieta osatzen du sugandila, urlehortar eta hegazti txikiekin. Batzuetan, saguzarrak ere harrapatzen ditu, elikadura urri denean, eta are erbinudeak ere.

Bere harrapakinak zatikatu eta jateko, hontza zuria atzerantz eramaten ditu aurpegiko lumak, bere aurpegi-diskoa beti garbi egoteko moduan; orduan ikus daiteke bere moko sendoa.



Hegazti honen ezaugarri behinenetakoa dugu bere digestio-ahalmen harrigarria. Pare bat ordu baino gehixeagotan, oso-osorik digeritu du lursagu baten tamainako edozein animalia. Horrek aukera ematen dio harrapakin ugari jan ahal izateko, bere metabolismo altu eta ondoriozko energia-galtzearekin erlazionaturik dagoena.

Gainerako gaueko harrapariak bezala, digestioaren hondakinak -larrua, hezurak, lumak, intsektuen oskol kitinatsuak, etab. iraizten ditu pilota obalatu eta gris ilun baten eran. Pilota hori, egagropilo izenekoa, substantzia lingirdatsu batez estalita dago, eta lehortzerakoan itxura distiratsu eta satinatua hartzen du, oso berezia eta gainerako gaueko harraparienaz bestelakoa.

Egagropilo ugari estaltzen dute izaki hauen bizilekuetako lurra. Eta horiei esker, hegazti hauen elikadurari buruzko azterlan baliotsuak egin daitezke. Bere gaueko gordelekua utzi eta harrapakin bat ehizatu bezain laster, hontza zuria gordelekura itzultzen da digestioa egitera. Minutu batzuk geroago hondakin-bola bat goitikatzen du eta berriro ere ekiten dio ehizari, harrapari ugari atzemateko, hauek izango baitira hurrengo egun osoan, eguzkia sartu arte, elikatuta eutsiko diotenak.

HABITATA: animalia hau, jatorriz, gehienbat haitzetakoa zen, eta harkaiztegi, labar eta kobazulo txikietan bizi zen; gaur egun, ordea, gizakiaren alderdiak kolonizatu ditu, oro har. Izatez, gure lurraldean, hegazti eder hauetarik gehienek herrieta-



ko gizakiaren eraikuntzetan egiten du habia, eraikuntza horiek direla bihitegiak, bertan behera utzitako etxe zaharriak, hilerriak edo baselizetak kanpandorreak, eta batzuetan saguzarrak bizikide dituela. Alabaina, ez da arraroa harkaiztegi-tan eta harrobietan bizi diren hegaztiak aurkitzea.

HEDAPENA: hontza zuria dugu, inondik ere, Euskadiko basoetan gaueko harrapari ugariena, hiru lurralde historikoetan banaturik aurkitzen baita. Hala ere, Bizkaian eta Gipuzkoan urriagoa da Araban baino, herri askotatik alde egin behar izan baitu, industrializazioak eta landa-ingurunearen hazkundera deuseztatu dutelako bertako bizimodu lasai eta atsegina. Ihes hori gertatu da, berebat, ehizan egiteko leku irekiak, landaretza urriak, eta nekazaritza-aldeak behar dituelako. Habitat gaueko anderearentzat egoki hau erraz aurkitzen da Arabako lautadan eta aspikantauriar eta mediterraneo alde osoan.

ZINGIRA-HONTZA, NEGUKO BISITARIA

NOLA EZAGUTU?: hontza honek 30 eta 33 cm altuera bitarteko tamaina du, bereizgarri dituela, hontza handiak bezala, buruaren alboetan dituen belarritxo antzeko luma-motoak. Hegoak altxatu samar agertzen dira, mirotzarenak bezalakoak, eta bere arraun-lumak elkarrengandik bereizita daude, saienak bezala. Isatsa ere laburra du, eta lumajea marroia eta izpil zuri ugari z pikardatua.

BIOLOGIA: hontza honek, estrigiformeen ehiza-teknikak konbinatzen ditu, hegada baxu eta isila, eguneko harraparien teknikekin, hegada gainera bizkor eta biktimentzako ezustekoa menperatzen duela. Portaera sailkaezin horren ondorioz, eguneko harraparien berezko ohitura batzuk ere hartu ditu, esaterako, harrapakinak metatzea edo jantokiak egitea, janaria ugaria denean. Era honetan, gose denean, harrapakinak metatu dituen lekuetara joaten da.

Batzuetan, altuera handira igotzen da korronte termikoez lagunduta, baina azkar asko jaitsi eta ekiten dio berriro arraseko hegadari, karraskariak ugari dabilzan zelai eta sastraka artean.

Neguko hotzak, udaberriaren etorrera geldiezinaren aurrean, epeltzen hasten direnean, gure zaskardi eta landazabaletan negua eman duten zingira-hontzek maitasunaren deia sentitzen dute eta hegadari ekiten diote azkar asko, Europako erdi eta iparraldeko ugalketa-lekuetarantz.

Martxoa hasi orduko ekiten diote, isil-isil, gaueko migrazioari, lurrak libratzen dituztela beste harrapari habiagile batzuk etor daitezzen.



Arina da itzulera bidaia, eta ozta-ozta bi astean badaude, beren habiagintza-lekuetan, eztei-hegaldietan arituta. Hegaldi horietan, hegan egiten dute, zirkuluan, beren lurraldearen gainetik, hegoei indarrez eraginda eta uhuketaren antzeko garrasi etengabe eta monotonoak jaulkitzen dituztela: bu-bu-bu, ilunabarrean batez ere.

Zingira-hontza dugu habia lurrean egiten duten gaueko harrapari gutxietako bat. Etzaleku txikia adaxkez egindako kofagune bat da, hezetasunez ondo isolatua, eta bertan erruten ditu emeak 4 eta 7 arrautza bitartean, maiatzean, batetik bestera bi eguneko tartea uzten duela. Hala ere, oso aldakorra da geroko txitoen kopurua, zeren, gainerako gaueko harraparietara gertatzen den bezala, dagoen elikagai-ugaritasunari baldintzaturik baitago. Horrela, karraskariak ugari diren urte faboragarrietan, errunaldiak hamabi arrautzarainokoak izan daitezke.

Eskandinavian, leming-ak, landako karraskari txikiak, gehiegi diren urteetan, zingira-hontzen txitaldiak ugariak izaten dira.

Arrautza kopuru handiaren ondorioz, emeak modu irregularrean txitatu ohi ditu lehenengo egunetan, txitoen tamainan diferentzia handiak galarazi nahian

edo, hilabeteko txitaldiaren ondoren hasten baitira jaiotzen. Hala eta guztiz, lehenengo txitoen eta azkenekoen arteko diferentziak ezinbestekoak dira, eta ohikoa izaten da, bereziki harrapakin ugari dauden urteetan, habia batean hegazti jaio berri itsuak aurkitzea, habiatik lasai-lasai ibilka-tzen diren ia hiru asteko eta ia lumaz beteriko beste batzuekin batera. Urte urrietan, ordea, ez da harrizkeoa txito nagusiek txikiak jatea.

Txitoak luzaro gabe independizatzen dira beren gurasoengandik; izan ere, jaio eta bost aste igerota, badira beren buruz elikatzeke gaiza.

Gazte gehienek azkar asko hasiko dute beren lehenengo migrazioa, isil-isil eta gaueko iluntasunean egiten dena. Umatze-lekuetan elikagai ugari egon den urteetan, hegazti negutarren gehikuntza ikus daiteke. Era berean, egiaztatua da iparrereupar populazio gehienek mediterraneoko herrialdeetan ematen dutela negua, gutxi direla Saharaz handiko aldeetara joaten direnak.

ELIKADURA: urriaren hasieran, udazkena hasi berria denean, iristen dira lehenengo hegaztiak, negu-pasako lurraldeak kolonizatzeko prest, eta bertan egongo dira udaberriaren hasierara arte. Ehizan egiten dute egun argiz, arratoiak eta lursaguak harrapatzen dituztela, horiek baitira haien elikaduraren %90 osatzen dutenak, janaria osatzen dutela ohitura lurtarrak dituzten hegaztiekin, esaterako, txirta eta buztanikarekin. Alabaina,



janaria urri denean, arratoi, kaio edo itsas mika handiak ere harrapatzen dituzte.

HABITATA: Euskadin, hiru lurraldeetan ikusi dira hegazti horiek, biotopo anitzetan, bai Bilboko Bokale ondoko larreetan, Serantes mendian eta Somorrostro-Kobaron, bai Urdaibaiko estuarioko zuhaitzetan, edo Aralar Mendizerrako pagadietan, Arratiako araneko belardi zabalak dituzten koniferoen basoetan nahiz, Arabar Lautadan, Biasteriko zingiretako zelai ireki zabaletan. Espezie arrarotzat jotzen da Euskal Herriko Espezie Mehatxatuen Katalogoan, eta ezezaguna da Euskadin duen populazioa.

HEDAPENA: neguko arratsalde goibeltzuetan ikus daiteke, egun argiz, arabar zelai zabaletan edo Bizkaiko eta Gipuzkoako landazabaletan altuera baxuan planeatze-hegadan, gaueko harrapari berezi bat, zingira-hontza, Europako erdi eta iparraldean habia egin eta udazkenean. urtaro hotza ematera, Euskadira datorren espezie bat.

Gure basoetan negutarra da, elur-hontzarekin batera, egunez ere diharduen gaueko harrapari bakarra.

EGUNEKO HARRAPARIAK: MIRUAK

Ornitologo batzuek egindako sailka-penaren arabera, miruek osatzen dute akzipitridoen familia bat, milbinoen familia, ia munduan osoan banaturik dauden 9 generok eta 14 espeziek osatua. Gure basoetan, eta Europa osokoe-tan ere, bi espezie bizi dira: miru gorria eta miru beltza, ondoren zehazten ditugula beren ohiturak, ezaugarriak, migrazio portaera eta ugaltzeko biologia. Dauden miru arraroenen artean ditugu miru barraskilojalea (*R. sociabilis*), 38-45 cm luzerakoa, Kuban, Floridan, Ertamerikan eta Hego Amerikan bizi dena -Mexikotik Uruguaira-, eta miru mokofina (*R. hamatus*), 35-38 cm luzerakoa, Panamatik Peruko Amazoniara banaturik dagoena. Bi espezieek ur gozotako barraskiloak jaten dituzte soilik, beren moko fin eta kakodunez baliaturik maskorretatik trebetasunez atera ondoren.



Amerikar kontinentean beste lau espezie bizi dira, hots, miru berunkara (*I. plumbea*), 32-38 cm luzerakoa, Mexikoko hegoaldeetik Argentinako iparraldera banatzen dena; Mississippiko mirua (*I. misisipiensis*), tamaina berdintsukoa, EEBBko hego-ekialdean umatzen dena; miru hortzbikoa (*H. bidentatus*), 30-35 cm-koa, Mexiko hegoaldeetik sortaldeko Boliviara eta Brasilera bizi dena, eta miru gorria (*H. biodon*), Guyanan eta Argentinako iparraldean eta Brasilgo hegoaldean bizi dena. Bi azken miru horiei hortzbiko esaten zaie, mokoaren atzealdean eta ertzean hortzerako bi zulotxo dituztelako, intsektu

handien oskol kitinatsuak hautsi eta puskatzeko erabiltzen dituztenak, intsektu handiak baitituzte, narrastiez gainera, harrapakin nagusi. Munduko bestaldean, Australian, bizi da isats karratuko mirua (*L. isura*), 50-55 cm-koa, eta Ginea Berria eta Kaledonia Berria ditu bizileku miru txistukariak (*H. sphenurus*). Asiako hegoaldeko, Indiako, Ginea Berriko eta ipar Australiako ibai-bazterretan bizi dira miru brahmanikoak, esaterako, mangladietako mirua (*H. indus*), 45-50 cm-koa. Moldatzeko gaitasun handia dutela, ugaztun eta narrasti txikiak ez ezik, haragi eta arrain-industriako hondakinak ere jaten dituzte eta, portu eta hiri inguruetan ikus daitezkeelarik.

MIRU BELTZA, BIZIZALE MOLDAKORRA

NOLA ANTZEMAN?: miru beltza tamaina ertaineko harraparia da, 0,7 eta 1 kilogramo bitarteko pisua duena eta 55 eta 60 cm altuerakoa. Bere izenak adierazten duen bezala, lumaje homogeneoki ilunaz horniturik dago. Ezaugarri horixe du miru gorriaren aldean bereizgarri; izan ere, miru gorriaren kolorea ugariago eta kontrastatuagoa da, buru argitsua du eta bular okre bizikoa, sabalaldean eta isatsean difuminatzen dena. Era berean, miru beltzaren isatsaren muxarradurak, azpitik ikusita, kolore belzkara agertzen du; miru gorriarena, berriz, handiagoa eta zuria da, eta bere hegok kolore bereko orbain handiak dituzten azpialdean.



Hegan agertzen duen siluetak, hego zabalak eta isats luzea bereizgarri dituenak, hegada akrobatiko eta planeatzailerako duen gaitasun handia islatzen du. Bere moko luzeak, beste espezie batzuenak, belatzarena kasu, bezain kurbatua ez denak, haratustela jateko joerak islatzen ditu. Bere atzapar ahulek, atzazal motzez horniturik, eta garapen eskaseko tartso eta izterrek ere adierazten dute harrapakin indartsuak harrapatzeko oso moldaturik ez dagoela. Azkenik, arraun-luma primario eta sekundarioen garapen handiak, eta lemaren zabalak agerian jartzen dute harrapari hau hegalarri nekaezina dela, baina pertsekuzio bizkorak eta pika-tuak egiteko gaizki hornitua.

BIOLOGIA: martxoaren erdi aldera iristen dira lehenengo miru beltzak Euskal Herrira. Erraz ikus daitezke zeruan bere artazi sofistikatuak egiten dituztenean, mirotzek soilik gainditzen baitituzte hegadaren domeinuan. Baina miru beltzek, limurkeria bitartean ez ezik, urte osoan ere egiten dituzte hegada ikusgarriak. Araldian, badirudi habia egiteko eta kumaldia zaintzeko unerik ez dutela izango, hain dago bikotea hegadari emana. Bikoteak altuera handira igotzen dira eta planeatze txiki bat eginda zuzen behera jotzen dute zuhaitzen kukulak ukitzeraino. Horrela, hegada akrobatiko eta estaldura artean gertatzen da haien araldia. Harrapari honek joera du zuhaitz altuetan egindako kolonietan umatzeko, bertan kokatzen du habia adarkadura ezkutu eta iristeko zailak direnetan. Batzuetan beste hegaztiren baten habia zaharraz baliatzen dira, eta landarezko materialaz gainera - adarrak eta hostoak-, basoan aurkitzen duten guztia gaineratzen diote, esaterako, paperak, trapuak, janz-



kiak, ilekiak eta are harkoskorak ere. Mirua ez da bate-re zorrotza habiaren kokalekuari dagokionez, zuhaitzik ez egonez gero, zuhaixka artean, labarretako itrenunetan egiten baitu, eta are lurlean ere, beste erremedio-rik ez badu. Habiaren tamaina aldakorra izan ohi da, eta diametroaren neurria metro erditik metro batera joan daiteke. Emeak bertan erruten ditu hiru arrautza, zuri horixkak eta izpil arrexkez pikardatuak, batetik bestera bi edo hiru egun direla, eta bost astean zehar txitatzen ditu. Denboraldi horretan guztian arrak elikatzen dio eta eguerdian soilik, beroa denean, altxatzen dira "hankak luzatu" eta giharren malgutasuna kentzeko. Txitoak arian-arian jaiotzen dira, arrautzak errun ziren neurrian, lumatxa grisaz jantziak, eta gurasoek etengabe elikatzen diete, azkar asko hartzen dutela pisua. Habian egoten diren aldia 7 aste eta erdikoa izaten da ozta-ozta, laburrenetarikoa dela eguneko harraparien artean. Jaio eta 14 egun igarota hasten zaizkie irteten lehenengo lumorratzak, eta bi aste geroago lumaz jantzita ageri dira. Lehenengo hegadak 40 egun dituztela egiten dituzte.

Ugalketa amaitutakoan, miruak bakartasunari utzi eta taldekoi bihurtzen dira, talde-tan moltotzen direla migratzeko. Oso laster egiten dute Euskal Herrian bizi diren gainerako harraparien aldean; izan ere, abuztuaren erdialdetik bertatik, amaierara iritsi gabe, hasten dira afrikar kontinenterako bidean.



ELIKADURA: miru beltzak beste edozein harraparik baino hobeto jakin izan ditu bizitzeko erabiltzen izadiak eskaintzen dizkion baliabideak, are gizakiak gertarazitako aldaketak ere; izan ere, zabortegetako janari-hondakinak nahiz errepideetan kolpaturiko animaliak edo ibai kutsatueta oxigenorik ezagatik hiltzen diren arrainak jaten ditu.

Miru beltzak, harrigarriro, bereziki nahiago ditu animalia gaixo edo ahulduak, ehizatzeo errazagoak, eta urlehortar txiki eta traketsei edo onodun gazte trebatu gabeei izan ezik, ez die sekulan ere animalia heldu eta sanoei erasotzen. Ohitura horri esker izugarri onuragarria gertatzen da izadirako, hautespen naturalari laguntzen baitio gaitasun gutxieneko animaliak edo infekzio-iturri izan daitezkeen gaixoak garbituz. Izatez, hirurogeita hamarrek hamarkadan, mixomatosiak iberiar untxien hilaldi handia gertarazi zuenean, hegazti hauek neurri handi batean gelditu zuten gaitasun horren hedapena leku askotan, azkar asko klaskatu baitzituzten animalia hilak edo hilaurrenak. Saiak bezala, ugaztun handien gorpuak eta errepideetan kolpaturiko edozein animaliatxorena jaten dituzte, bertan aurkitzen dutela bere sostenguren parte on bat. Alde horretatik, trebetasunez erabili dute giza kiaren aurrerapenak eskaini diete aukera, bai errepideetan, bai zabortegetan, eta bertara jotzen dute beleekin batera janari bila. Ibaietan arrantzale trebe agertzen dira, eta beren atzaparrez harrapatzen dituzte arrainak ur azaletik hurbil daudenean, eta batzuetan beste harrapari batzuei eraso diete atzaparretan daramatzaten harrapakinak lapurtzeko.

HABITATA: Euskal Herrian, urbazter inguruko basotoak eta behe-basotak ditu habitat hobetsiak, bertan aurkitzen baitu janari ugari. Alabaina, bere banaketa-



lurraldearen zabalagatik, pinudietan, estepetan, labarretan, angioetan eta artelatzen eta artadietan ere bizi ohi da.

HEDAPENA: horrelako harrapari batek banaketa-lurralde zabala agertzen du, munduko alde klimatiko guztiak biltzen dituena, salbu eta alde boreala eta desertuetakoa. Beraz, ageri da Europa osoa, Eskandinavian salbu, eta Britainia Handian, Asiako parte handi batean, Afrikan eta Australian.

Gure basoetan eta europar kontinente osoan, hegazti migratzailea da, udaberrian eta udan soilik, ugaltzeko, bizi ohi dena.

Euskal Herriari dagokionez, Araban batez ere aurkitzen da -azpikantauriar aldean-, bereziki ugari dela Ullibarri eta Urrunagako urtegietan, Aiara eta Koartangoko Aranetan eta Bayas, Zadorra eta Ebro ibaietako arroen ondoan sortzen diren basotxoetan.



MIRU GORRIA, EUSKADIKO BITXIA

NOLA ANTZEMAN?: 750 gramo eta 1,2 kilogramo bitarteko pisukoa eta 60 eta 65 zentimetro bitarteko altuerakoa.

Lepoko eta buruko lumak kolore argiagoak ditu, eta orban zuri bereizgarria du hegoen barnealdean.

Miru beltza baino isats urkilatuagoa du eta lumaje argiago eta koloretsuagoa.

BIOLOGIA: apirilaren erdi aldera iristen dira miru migratzaileak gure basoetara, eta orduan gertatzen dira eztei-jarduerak. Jarduera horietan, eguneko harrapari guztien kasuan bezala, arrak hegada-agerraldi luzeak egin ditu lurraldea markatzeko eta emea erakarri eta limurtzeko, habia egiten hasi baino lehen. Geldikor geratu diren hegaztiak lehenago egiten dute habia, zeren udaberriaren hasieran, martxoaren hasieran edo erdi aldera, eguraldi egoeraren arabera, bikoteen arteko loturak estutu eta habia egiten hasten baitira; baina bikote berriak izan ezik, gainerakoak aurreko urteetako habiak berregitera mugatzen dira. Habia kokatu ohi dute enborraren eta lurretik altuera onean dagoen adar mardul baten sorreraren artean, eta belarrez, lurretik hartzen dituen adar ihar-tuez edo erdi ihar-tuez eta, miru beltza bere senideak egiten duen bezala, landatik aurkitzen duen guztiaz egiten du: trapuak, tabako kartoiak, plastikoak..., itxura baldar eta aldi berean bitxia hartzen duela.

Emeek bi arrautza errun ohi dituzte, baina batzuetan txito bat bakarra ere izaten da abian, normalean emea lehenbiziko aldiz parekatzen denean, eta inoiz hiru arrautza ere erruten dituzte; arrautzak zurixkak dira eta izpil marroikara ugari dituzte. Inkubazioa emearen kontura doa, 15 eta 35 minutu bitarteko alditxoetan izan ezik, hauetan bere kideak ordezkatzeko baitu. Txitaldia lehenengo arrautza errutearekin batera hasten da eta hilabe-



te irauten du -30 eta 32 egun bitartean-. Alabaina, arrautza bakoitza hiru eguneko tartean erruten du, eta beraz, hiru arrautza erruten dituenegatik, txitaldiak 36-38 bat egun irauten du. Arrak emearentzat ehizatzen du; janaria ugari bada, habia ondoan jarrita geratzen da askotan, lurraldea defendatzeko, eta aldi-aldi horietan habia gainetik hegaldatzen da. Txitoak jaio ondoren, amak zaintzen ditu ardura handiarekin: berotu eta janaria ematen die eta bi astetan ez du habiatik zirkulatu egiten. Lumak garatzen dituzten neurrian, arrarekin batera joaten da janari bila. Miru gorri gazteak 6 aste eta hiru egun inguru egoten dira habian, baina hegan egiten ikasi dutenean beste egun batzuetan geratzen dira habiaren inguruetan, eta bertan elikatzen dira gurasoek habiara eramaten dizkieten harrapakinez. Bi hilabete dituztenerako hegan egiteko teknikak menperatzen dituzte eta habiatik urruntzen dira, gurasoek ez baitiete janari gehiagorik ematen.

ELIKADURA ETA EHIZA TEKNIKAK: tamaina ertaineko harrapari honek basoa behar du habia egiteko eta jarduerarik gabeko orduetan atseden egiteko, baina zuhaitzik gabeko eta sastraka ugari zela eta zazkardietan bilatzen du elikagaia. Miru gorria goiztiarra da bere eguneroko jarduerari ekiten. Eguzkiak landa argitzen hasi orduko, uzten du bere etzalekua hegada astunaz, ia altxatu gabe, eta ehiza-lurraldeetara jotzen du. Bertara iritsi orduko, patxadaz aztertzen du lurraldea, lurretik metro gutxitara hegan eginez eta planeatuz, eta bat-bateko norabide aldaketak egiten ditu, bere isats luze eta adarkatuari esker haizearen joera guztiz ongi kontrolatzen baitu. Miruaren ehiza-teknikarik ohikoenetakoa da planeatze zirkularrak edo



lerro zuzenean egitea bere ehiza-lurraldearen gainean, altuera txiki nahi handian, eta harrapakin bat ikusi bezain laster zuzen-behera jotzen du berarengana, atzaparrak guztiz eta aurrerantz irekita dituela, harrapatzeko asmoz. Harrapatzeko duen trebetasuna beste espezie batzuen baino askoz ere txikiagoa izan ohi da; izan ere, asko dira, ustekabeen ez harrapatu ezker, ihes egiten zaizkion harrapakinak, trebea ez baita atzetik jarraitzen, nahiz eta lehenengo unean oso azkarra izan. Baina beti ez doa janari bila; batzuetan egonarriz geratzen da zelatan zuhaitz batean jarrita, karraskari edo hegaztitxo bat noiz agertuko zain; batzuetan, beleen atzetik ere ikusi dira, hankartearen daramaten haratustela lapurtzeko, zeren miru gorriak, bere senide beltzak bezala, eklektizismo handia agertzen baitu alde honetatik, oso dieta anitza duela: urlehortarrak, narrastiak, intsektuak, hegaztiak, ugaztun txikiak eta arrainak eta haratustelak. Erdiko Europan bizi diren populazioek ez bezala, "microtus" generoko karraskariak, lursaguak eta arratoitxoak baitituzte dietaren oinarri, gure basoetan narrastiek eta intsektuek osatzen dute gehienbat miru gorriaren dieta. Bere dietaren aniztasun handiak aditzera ematen du ehiztari gutxi espezializatua dela, eta, beraz, hizkera naturalistan, oportunistak trofikatzen joa daiteke.

HEDAPENA: Washingtongo Itunaren I. eranskinean sartuta, banaturik dago gaur egun Afrikako iparraldean,



Europako hego-erdialdean eta Turkian; baina XIX. mendera arte bizirik iraun zuen Austria, Hungaria, Polonia, Norvegia, Danimarka eta Britainiar Uharteetan, azken herrialde horretako erdi aroko hiri eta herrietan bizi izan zen 1800. urtera arte, kaleetatik sakabanaturik zeuden hondakinez eta haratustelez elikatuta. Gaur egun bikote batzuek soilik bizirik diraute Galezko Herrian. Kanariar uharteetan ere bizi da populazio txiki bat. Europa osoan jasaten duen atzeraldiaren arrazoiak berdintsuak dira bere kasuan eta gainerako harraparien kasuan: habitaten suntsipena, ehiztari eta pestiziden eragina, gizakiak haren lurraldean gertarazten dituen nekaldiak...

ZAPELATZAK

Buteo generokoak direla, zapelatzak eguneko harrapariak dira, gutxi espezializatuak eta tamaina ertainekoak, arranoen itxura gogorarazten dutenak. Zehazten diren 25 espezieetatik bat bakarrik bizi da Euskal Herriko, hots, zapelatz arrunta, baina guztiek dituzte hego zabalak eta isats zapalak, eta planeatzaile bikainak dira. Espezie bereko kideen lumajeak tonuera ezberdinak ager ditzake. Normalean, sabelaldeko luma laburrek zehar-marradura agertzen dute; arrak eta emeak esateko berdinak dira espezie gehienetan, hau da, ez dute dimorfismo sexualik agertzen, eta hegazti gazteen lumajea helduenaren antzerakoa da guztiz. Zapelatzak oso hedaturik daude Planeta osoan, australiar kontinentean izan ezik. Lurralde zabal horretan guztian, espezie, subespezie eta arraza ugari ugaltzen dira elkarren artean, eta, ondorioz, zoologoek ez dute mugaketa sistematiko baterako irizpideak bateratzea lortzerik izan. Zapelatz arrunta dugu Europan eta Asian espezie sarriena; Eskandinaviako baso tundretan bizi da zapelatz galtzaduna (*B. lagopus*), arruntaren itxura berdintsua duena, eta europar hego-ekialdean eta Errusian ugaltzen da zapelatz han-



dia (*B. rufinus*), honen populazio nagusiak erdialdeko Asiara eta ipar Afrikara zabaltzen direla. Iberiar penintsulan espezie honetako hegazti asko ikusi dira Cazorlako mendizerran, Doñanako Parke Nazionalen eta Gibraltarren. Ipar eta Ertamerikan zapelatz buztangorriak betetzen du zapelatz arruntak Europan betetzen duen eginkizuna. Buteo generoko 25 zapelatz espezieez gainera, zoologo askok zapelatz irizten diete beste hiru generotako beste sei espezieri, beraz, 31 espezie izango lirateke gaur egun bizi direnak.

ZAPELATZ ARRUNTA, ZUHAITZETAKO HARRAPARIA

NOLA ANTZEMAN?: zapelatz arrunta dugu tamaina ertaineko harraparia -0,6 eta 1,3 kilogramo bitarteko pisukoa eta 51 eta 56 zentimetro bitarteko altuerakoa-, lumaje arre marroikara duena, miru gorriarenaren oso antzerakoa; tamaina berdineko tartsoak ditu, luzeak edo eta biluziak, baina, hark ez bezala, hego zabalak eta profil bigunagokoak ditu, eta profil biribileko isatsa.

BIOLOGIA: harrapari honek guztiz ongi menperatzen du hegan egiteko teknika, eta eguzkiak lurra berotu ahala eraten diren korrante termikoei esker, planeatze luzeak egiten ditu altuera handian, zirkulu zabalak eginez; aldian behin, planeatze horiei utzi eta zuzen-behera oldartzen da, hegoak itxita, abiadura handian jaitziz metro batzuk behe-rago, eta posizio honetatik jarraitzen du bere planeatze zirkular patxadatsuan.

Airean duen poderio hori gorabehera, neguaren amaieran zapelatzak araldian sartzen denean hasten dira benetako agerraldiak. Garai ludiko horretan, bikoteko kideak bata bestearen atzetik doaz hegada azkar eta zuzen-beherako oldarraldietan, ildaxkak marraztuz zeru urdinaren kontra, nahiz eta habia egiteko jarduerari zenbait aste geroago ekin. Batzuetan, aurreko urteetan egindako habiaz baliatzen dira, material berriak ekarri soilik berriztatzen dutela. Beste batzuetan, agian etzalekua narriatuegi dagoelako edo lehengo ugalketa-garaian nekaraziak izan zirela gogoratzen dutelako, beste habia berri bat egitea nahiago dute. Orain, habia egiterakoan "ahaleginik gutxienaren legea" aplikatzen saiatzen den arren, ez ditu sekulan ere erabiltzen beste hegazti batzuek egindako habiak, esaterako, korbidoenak.

Habia eratzen du adarrez, azalez eta hosto berdeez osaturiko plataforma batek, zuhaitzen baten adarkadura mardularen gainean finkatzen dena. Beti jartzen dute 5 metroetatik goragoko altueran, eta 9 edo 10 metro-tara iritsi daiteke, horretarako baldintzak egonez gero.

Etzalekuaren erdialdea normalean goroldioez eta lumatez estalita dago. Zapelatzak ugaltzeko gai dira urtea bete dutenean, baina heldutasun sexualera iritsiak diren hegazti gazteak, leku egokirik edo bikotekiderik aurkitzen ez badute, espe-



ziea ugaltze gabe geratzen dira urte horretan. Izatez, ez da harrigarria habiagintza-garaian hegazti bakartiak ikustea. Eztei-aldia eta estaldurak amaitutakoan, emeak 2 edo 3 arrautza erruten ditu -batzuetan 5eraino iritsiz-, oso berde argitsuak eta izpil arre biziak edo dituztenak. Bikoteko kide biek esku hartzen dute inkubazioan, -kasu arraroa gure harraparien artean, emea baita ia beti zeregin horretaz arduratzen dena-, baina emeak dira jarduera horren parte handiena egiten dutenak. Inkubazioaren iraunaldia hilabete batekoa izaten da, gutxi gorabehera, eguraldia nolakoa den. Gizakiak edo animalien batek habiari eraso eta txitaldia galtzen bada, bigarren errute bat egin ohi dute luzaro gabe -15 egunetatik 20era bitartean-. Hain

zuzen ere, zapelatzen habiagintza berankorrek bigarreneko errunaldietarako izan ohi dira, lehenengoa galdu zelako. Gainerako harraparien kasuan gertatzen den bezala, txitoek ezarian jaiotzen dira, arrautza jarri zen dataren arabera. Txitoen lehenengo bizi-egunetan aita da janari bila doana, eta habiara eramaten du bere kideak harrapakina zati-zati eginda txitoei jaten eman diezaien. Txitoak beren kabuz elikatzeko gai ez diren bitartean emeak ez du habia uzten arrari ehizan laguntzeko, baina beren kabuz harrapakinak jateko gai izan orduko, arra eta emea aritzen dira jo eta ke janaria "etxera" eramaten, eta bertan uzten dute banatu gabe.

Txito handienek hartzen dituzte zatirik onenak, eta gainerakoak uzten dituzte txikientzat;



horrek esan nahi du, eskasiako urteetan, txitaldi ugaria bada edo 3 edo 4 txitok osatua bada, azken jaiotako biak hil ohi direla.

Arrautzen eklosioa gertatu eta 42 edo 44 egun igarota, gazteek, lumaz beterik, habia utzi eta lehenengo hegadak egiten dituzte adar eta zuhaitz hurbilen artean. Heldu gabe daudenak habia ondoan geratzen dira zenbait astetan, gurasoek elikatzen dietela, barreiatu eta ehiza-lurralde bila jo arte.

ELIKADURA: Europako iparraldean bizi diren zapelatzek ugaztunak jaten dituzte batez ere, bere dietaren %70-90a suposatuz, hegaztiak eta narrastiak haien dietaren %10-30 bitartean daudela; Mediterraneo aldean eta Espainiako hegoaldean bizi direnek, ordea, intsektuak eta narrastiak dituzte beren dietaren oinarri, %87raino iritsiz, egindako elikadurari buruzko azterlanen arabera. Portzentaje hori Euskal Herrian ez da hain altua; izan ere, ugaztunek haien elikaduraren %55-60a osatzen dute, eta intsektuek, hegaztiak eta narrastiek, berriz, %40-45a.

Harrapakinak atzimateko, zapelatzek altuera baxuan planeatu ohi dute larre eta lur ireki edo zuhaixka urriko lurren gainean, supituan agertu eta ezustean harrapatzeko eta, horrela, ihesaren aukera mugatzeko. Belatzak bezala, airean geldi daiteke hegoak astinduz haizearekin batera, landaretzari adiadi begira izaki bizidunen batek sortutako mugimendurik gertatzen ote den. Batzuetan haitz batean edo adar garai bate-



an luzaro jarrita egoten dira, lurraldea ikusteko parada ematen dien malda baten goialdetik, harrapakin bat noiz agertuko zain. Zelata-ehiza hori oso onuragarria izan ohi zaie.

HABITATA: mota guztietako basoetan aurki daiteke, baina ugariagoa izaten da arboladiak eta eremu irekiak tartekaturik dituzten lurraldeetan.

HEDAPENA: bere exijentzia ezari esker, kolonizatu ahal izan du iparraldeko, epe-laldeko eta Mediterraneo aldeko ia Europa osoa, ageri dagoela Finlandiatik ipar Afrikara, eta Asiako parte batean. Lurralde-banaketa zabala duten animalia gehienak bezala, Afrikako iparraldean bizi diren zapelatz arruntak ez dira Kaukason bizi direnen berdin-berdinak, halako aniztasun morfologiko bat garatu baitute, bereziki lumajearen koloreei dagokienez; horrela hainbat subespezie bereizten dira, horietarik hiru Europan

bizi direla. Gure basoetako zapelatzak *Buteo buteo buteo* subespeziearen barruan katalogaturik daude, mendebaleko Europa osoan eta Britainiar Uharteetan ere bizi direla. *Buteo buteo vulpinus* izeneko subespeziea, zapelatz arrunt siberiarra ere deitzen zaiona, Ekialdeko Europatik Siberiaraino hedatzen da, eta hirugarren subespeziea, Kaukasoko zapelatz arrunta, *Buteo buteo menstriesi* izenekoa, Anatoliako penintsulan eta Kaukason soilik bizi da. Lumajearen koloreetan ez ezik, subespezie hauek migrazio portaeran ere bereizten dira elkarrengandik.

AZTOREAK

Aztoarek eta gabiraiak akzipitrinoen subfamiliakoak dira -akzipitridoen familia-; bereizgarri dituzte hego zabal eta biribilduak, isats motza eta atzapar indartsuez hornitutako hankak. Dauden espezie guztietan, 18 aztoare eta 56 gabirai, emeak askoz handiagoak dira arrak baino. Harrapari hauek hegada zalu eta bizkorra dute, eta, horrela, ahalegin handirik gabe harrapatzen dituzte beste hegazti batzuk airean, edo, beste batzuetan, lurtar ugaztunak. Usoak eta untxiak dira haien harrapakin nagusiak. Espezie txikieneak, gabiraiak kasu, hegazti txikiagoak harrapatu ohi dituzte, esaterako, beleak, eskinosoak, mikak..., eta halako beldurra sortzen dute txori batzuen artean, ezen, aztoare edo gabirai baten aurrean, haserre handian erreakzionatu eta taldean elkartzen dira etsai beldurgarriari jarraitzeko.

Aztoarek eta gabiraiak, belatzez gainera, betidanik erabili dituzte harrapari-ehiztariek; hala, belatzek airean, altuera handian eta hegada bizkorrean atzematen dituzte beren harrapakinak, lur irekietan ehizatzeo erabiltzen direla; aztoarek eta gabiraiak, ordea, landaretzar ugariko aldeetan edo



baso erdian egiten dute ehiza batez ere. Kurriloak edo lertxunak ere hiltzeko gauza dira, hain dira ehizarakoak. Izaera hori dela eta, zabal erabiliak izan ziren asiar herrietan, hanka luze-ko hegazti hauek animalia nobleztat jotzen zituztela. Gizakiak murriztu egin ditu harrapari ahaltsu hauen populazioak, pestiziden erabileraren nahiz pertsekuzio zuzenaren bitartez. Hori horrela ere, hegazti helduek ia ez dute berezko etsairik, estringido handiak izan ezik, hontza handia kasu, edo gaueko harrapari batzuk izan ezik, esaterako, arrano txikiak edo Bonelli arranoak.

GABIRAIA, ADARRARTEKO IRATXOA

NOLA ANTZEMAN?: adar arteko benetako iratxo den gabiraia, egia esan, miniatuazko aztoare da. Alabaina, baditu ezaugarri bereizgarri batzuk, esaterako, begi horiak, bere ahaide nagusiarenak laranja kolorekoak diren bitartean; gabirai arren kasuan, gainera, kolore laranja nabarmena dute sabelaldean, aztoarek ez dutena. Halaber, xeheagoak eta hanka luzeagoak dira, hanketan behatz izugarri luze eta finak dituztela, baina behatz hauek, izatez, beren elikatze-erregimenari moldatzearen ondorioak dira, basoko txoritxoetan batez ere oinarritzen baita. Beren tamaina 28 eta 30 cm bitartean dago eta beren pisua 140 eta 320 gramo bitartean; aztoare, ordea, 1.200 gramotara iristen da. Urtebetea gaintu ez duten gabirai gazteen lumajea helduenaz nabarmenki bestelakoa da; izan ere, arren lumajeak tonuera arrexka agertzen du, izpil arre-gorritzekin, eta adin berdintsuko emeen izpilak txikiagoak eta grisak dira.

BIOLOGIA: apirilaren lehenengo egunetan, udaberria jaio bezain laster entzun daitezke gure basoetako gabiraien garrasiak oso urrunetik, "maitasun-garaia"-ren hasiera iragartzen dutela. Arrak beren ugalketa-lurraldeez jabetzen dira azkar asko, emea erakartzeko hegada akrobatikoak egiten dituzten bitartean. Bikoteak egin ondoren, kideek hegan egiten dute elkarrekin, elkarri limurketa eginez eta beren gorputza estaldurarako prestatuz. Sarritan altuera handira igozten dira kiribila eginez eta isatseko luma-motto zuri ikusgarria erakutsiz, elkarrekin zuzen-beherako oldarraldi harrigarria egiten dutela, berriro ere, bat-batean, goranzko hegadari jotzeko.

Limurtzeko beste teknika bat ikusi ohi da hegazti hauengan: bikoteko kide biek hegada horizontalak egiten dituzte, joan-etorritakoak, pausaleku batetik beren lurraldearen mugaraino, eta, horrekin nahasita, bat-bateko igoerak egiten dituzte, eta zuzen-beherako jaitsierak ondoren.

"Maitasun" erakuste hauetan, bikotea adar batean pausatu ohi da, arrak emea estaltzen du eta ondoren hegada-agerraldiarekin jarraitzen dute.

Gabiraiak leku berberetan egin ohi dute habia urtean-urtean. Oro har, inguruak zaindu ahal izateko moduko lekuak izaten dira; beraz, zuhaitzetako soilguneak edo mendi-mugetako ertzak aukera-



tzen dituzte. Aztoarek ez bezala, ez ditu basoko lekuri ezkutuenak aukeratzen.

Batzuetan, bikote batek habia bat baino gehiago dauka, emeak guztiz egina edo mika edo bele batena izan baina bertan behera utzita izan daitekeena. Horrela, harrapari eder honek handitu eta berriztatzen du.

Hala ere, hegazti hauek halako hobespena agertzen dute habia halako altuera batean eta ia enborrari itsatsita kokatzeko, ikusgaitzagoak gerta daitezke. Aztoaren bikoteek habia elkarrekin egiten duten bezala, gabiraien kasuan zeregin hori emeen ardurakoa da soil-soilik, eta habia egiten amaitu dutenean ez dute hosto eta adar berdeez estaltzen, adar ihartuekin baidiz.

Estaldura gertatu ondoren, emeek 2 eta 6 arrautza bitartean erruten dituzte, eta 9 eta 10 arrautzako txitaldiak gertatu diren arren, ohikoena da 4 edo 5ekoak izatea, tamaina ertainekoak, 39 x 31 milimetro ingurukoak.

Arrautza bakoitza bi eguneko tartean erruten da, eta, ondorioz, agerikoak dira txitoen arteko adin-diferentziak, nabariagoak direla familia ugariagoa izan ahala.

Harrigarriro, inkubazioaren irau-naldia, 35 eguneko -aztoareare-



na baino nahikoa laburragoa-, izugarri luzea da halako tamaina-ko hegazti batentzat; izan ere, naturan lege da zenbat eta txikiagoa izan hegazti hainbat eta txikiagoa dela arrautzen txitaldia. Denboraldi horretan emea ia ez da habiatik mugitzen. Txitoak jaio eta hiru aste bete artean, arrak hartzen du familia osoari elikatzearen ardura, salbu eta harrapakin-eskasiako urtea izan eta emea irtetera beharturik egon. Geroztik, emea arrarekin batera irteten da ehizan, kumaldia elikatzeko. Lau aste dituztela hasten dira txitoak habiatik kanpo ibiltzen. Hasieran, habiatik hurbileko adarretan soilik ibiltzen ausartzen dira, baina laster asko hasten dira inguruko zuhaitz eta zuhaixketara hegan egiten, eta bertan itxaroten dituzte gurasoak, janaria hartzeko zain. Bi aste eta erdian lagun egiten diete gurasoei ehizan, eta basoko txoritxoak eta karraskariak itsumustuan harrapatzen eta atzematen ikasten dute. Gero, gurasoek ardura kenduko diete eta beren buruz bilatu beharko dute janaria; hasieran gurasoen lurraldean bertan, eta, gero, lurralde berrietan.

Ipar Europako hegaztiak Afrikara migratzen dute neguan, batzuk Iberiar penintsulan geratzen dira, baina Euskal Herrian bizi direnek, aztoreek bezala, ez dute kontinente beltz handiaren deia sentitzen.

ELIKADURA: harrapari honen dietari buruz egindako azterlanek aditzera ematen dutenez, txolarreak jaten ditu batez ere -dietaren %40a-. Hortik dator, hain zuzen ere, bere ingelerazko izena: "sparrow hawk", txolarre-aztorea adiera duena. Halako hegaztitxo txikiekiko dependentsia areagotu egiten da neguan batez ere; izan ere, sasoi horretan, harrapakinen eskasia dela eta, begirada sakoneko harraparia landa-gune inguruko basotxoetara ibili behar da. Birigarro arruntak ditu, txolarreen ondoren, harrapakin nahienak, eta gero, txontak, hegatxabalak, berdantzak, kas-kabeltzak, txinboak eta txantxangorriak. Batzuetan, goseak jo-



tzen duenean, basasaguak, lursaguak eta katagorriren bat harrapatzen ditu.

Harrapari hauek teknika batzuk erabiltzen dituzte beren harrapakinak atzemateko; horien artean ditugu basoko soilgunee-tan edo txoritxoak daudeneko zuhaixketan itsumustuan agertzea, eta zelatan ehizatzea. Azken taktika hori burutzeko, hegazti harraparia geldieratzen da ikuspegi bikaineko leku batean, basoan zer gertatzen den arakatu eta edozein mugimendu susmagarri kontrolatu ahal izateko moduan. Sistema horretaz baliatzen dira batez ere udaren hasieran, oso onuragarria gertatzen baitzaie habia utzi berri duten txito trebatu gabee-kin.

Aztoreek bezala, zati-zati egin eta kontsumitu ohi dituzte beren harrapakinak leku garaietan.

Askotan, gabiraiak ibilera handiak egiten ditu hegada bizkor eta baxuan, harrapakinik ikusten ez badu ere; badaki edonon ager daitekeela eta nahikoa duela azken unean ikustea, zeren bere abiadura handiari eta maniobra egiteko gaitasun handiari esker, segundo gutxitan norabideaz aldatu eta harrapa baitezake.

Ehiza-hegaldian dagoenean oso altuera baxuan dabil, landaretza eta gora-beheretan -tontorrek, harresiak,...- ezkutatuturik, animaliak edateko edo jateko bisitatu ohi dituzten lekuak arakatu, esaterako, iturburuak edo baso masus-tez edo baiezteteriko sasiarteak.

HABITATA: zuhaitzak dituzten edozein motatako eremuetan bizi da, baina nahiago izaten ditu gizakien eraginetik urrun dauden baso helduak.

HEDAPENA: mundu-mailan, espezie hau palearktiko da, klima-alde borealetatik Europako, Asiako mediterraneoko aldeetara eta Afrikako ipar-mendebaldeetara hedatzen dena.

AZTOREA, BASOAKO JAIOA

NOLA ANTZEMAN?: tamaina ertaineko harraparia dugu aztorea, 50 eta 60 zentimetro bitarteko luzera eta 700 eta 1.200 gramo bitarteko pisua dituen, arren kasuan, eta kilogramo erdikoa emeen kasuan.

Bere lumajearen itxura nahastezina da, basoan kamuflatzeko diseinaturiko jantzia da. Sabelaldea eta hegoen azpialdea zizare antzeko pikardadura beltzez jantzita daude hondo gris per-laren gainean, nagusi duela azken kolore hori beren anatomian, eztarritik isatseraino, burua eta bizkarraldea marroi ilunagoz dituela.

Isatsaren sorreran lumamotto handia du, baina hori ez da nortasun handiena ematen diona; izan ere, bere nortasuna ematen diote iris gorrimin edo laranjadun begiek eta bere moko eta atzaparrek, proportzioz, handienak baitira harrapari guztien artean.

Ehizaren zeregin zailerako diseinaturia du bere morfologia. Horrela, oso ikusmen zorrotza du, azelerazio-ahalmen izugarria, oratzeko sistema eraginkorra eta, batez ere, maniobratzeko gaitasun batere arrunta; izan ere, gauza da 100 km/orduko abiaduran hegaldatzeko eta eragozpenak oso distantzia laburretan gainditzeko, basoko enborren



arteko leku meharretan lerratze-ko, eskuin eta ezkerrera jozteko enbor baten aurka talka egin baino metro bat lehenago, zuhaitzen kukulen gainetik bat-batean altxatzeko edo luraren kontra trebetasun handiaz iltzatzeko, bere itzelezko abiadura gelditzen duela segundo batean. Eta hori guztia, bere hego labur eta biribilduen egitura bereziari eta bere isats luze eta leuariari esker.

BIOLOGIA: gure basoetan bizi diren aztore urriak araldian sartzen dira otsailaren hasieran, eta bikoteak egiten hasten dira arrak dei ozenak jaurtitzeko dituen, hainbat kilometrotatik urrun entzun daitezkeenak. Emea, bere bizimodu eratsua uzteko prest, dei horretara agertzen da eta, orduan, bikoteko kide biek habia bat edo batzuk egiteari ekiten diote gero "etxeko buru" izango denaren lurraldean.

Normalean korbidoek egindako habiak erabiltzen dituzte, habia horiek handitzera mugatzen direla. Goian eta zuhaitzen

enborrari itsatsita dauden habiak aukeratu ohi dituzte, batez ere basoko lekuri ezkutuen eta hurbilgaitzenetan daudenak.

Oso aldakorra da habiaren adarrezko plataformaren tamaina, eta handituz doa urteekin; izan ere, harrapari hauek leku berberetan egin ohi dute habia, metro 1eko lodierara eta ia bi metroko diametroa iristen diren etzalekuak eginez. Lurralde baten barruan habia batzuk egiteko duten ohituraz baliatzen dira errutearen sasoi aurreko galerak gertatzerako; hala-ber, txandakako sistema gisa erabiltzen dute txitaldiaren arrakastarako kokalekurik onena zein den jakiteko.

Habiagintzako jarduera bitartean eztei-aldiak jarraitzen du, pertsekuzio ugari egiten dituztela zuhaitzen adarren artean eta hegaldi zirkular luzeak basoaren gainetik, altuera handietara igo-tzen direla, eta handik jaisten direla berriro ere errituala errepikatze-ko, elkarketa iritsi arte; orduan, arra ehizan irteten da eta harrapakinak opatzen dizkio habia inguruetan zain dagoen bere kideari.

Habiagintzaren iraunaldia hilabetetik gorakoa izan daiteke, eta, bitartean, estaldurak ia egunero



gertatzen dira.

Habia prestatzeko azken etapan, eurrez estaltzen dute zurtoin berde txikiez, zeregin hori oso garrantzitsua dela hegazti hauen-tzat, ez direla gelditzen txitoak hegana egiteko zorian egon arte.

Horrela lortzen duten habiaren garbitasuna eta higiea nabarmena da; izan ere, asko dira estalkiaren berriztapen etengabea ezkutaturik geratzen diren harrapakin hondakinak.

Bi egunez behin emeak arrautza bat erruten du, eta errutea amaitutakoan inkubazioari ekiten dio, 35 eta 40 egun bitartean dirauela. Ez du zeregin hori uzten, ez bada arrak dakartzan harrapakinez inguruetan elikatze-ko, eta inoizkako bainuak hartzeko, une horretan arrak hartzen duela haren lekua.

Txitoak jaiotzen direnean, amak estali eta jaten ematen die berak egindako harrapakin zatiez. Lehenengo lumatxa hausgara alda-tzen dute 8 edo 10 egun igarotakoan beste zuri batez, eta hau, berriz, arian-arian ordezkatzeko dute luma estalga-rriekin hirugarren bizi-astetik aurrera.

Elikadura ugariari esker, hegazti gazteak azkar asko haz-ten dira. Hilabete bat igarota ekiten diete lehenengo hegadei, baina habiatik oso urrun ibili gabe. Oraindik ez dira beren buruz elikatze-ko gai, eta gurasoek jaten ema-ten jarraitzen diete gazteek eurek, hilabetea dutela, zati-katu egiten dituzten harrapakinez. Airean lehenengo hegada-saioak egin orduko, amak ehizan egiten irakas-ten die, eta harrapakin zaurituak eramaten dizkie txitoek jarraiki diezaizen eta hil ditzaten. Astebetean saioak egin ondoren, familiak ekiten die lehenengo egiazko ehizal-diei.

Uda hasi da basoan eta harrapakin trebatu gabeak - hegazti gazteak eta ugaztunak- ugari dira, gero-ko aire-ehizatariak errazago dutela lehenengo ehiza-saioak egi-tea.

Familia lokarriek abuztura arte irauten dute, baina une horretatik aurrera, helduek lurraldea uztera behartzen



dituzte kumeak, eta hauek bizimodu ibiltari bati ekiten diote hurrengo udazken eta neguan.

Egoera arruntetan aztoerek bi urte eduki arte umatzen ez badute ere, askok bikote egiten dute, heldu batekin oro har, urtea bete gabe; horren arrazoia dugu espeziearen beherakada handia eta beren ugaltzeko gaitasuna. Oso sasoi aurreko aldia da kontuan hartzen badugu beren bizitza nabarmenki luzea; izan ere, hegazti batzuk 17 urtetara iristen dira.

ELIKADURA: hegazti baten elikaduraren beharrezana 160 eta 180 gramo haragi bitartean dago eguneko.

Eguneko harrapari hau, basartean ehiza egitera molda-tuenetakoa dena, zuhaitzetako gaindegietan jarri ohi da bere feudoko lurralde zabalak menperatzeko. Halako jarrera pribilegiatu horretatik erreka-bazterretara begira-tzen du, bertan ugari baitira ur-arratoiak, edo basoko soil-guneetara, bertatik joaten baitira jatera hegazti alejaleak edo untxiak. Jaki horietako bat ikusten badu, abiadura handian oldartzen zaio, heldu eta azkar asko hiltzeraino.

Eta goseak jotzen duenean, aztoerek arpilatu egiten ditu habiak, batez ere korbidoenak; tre-betasunez sartzen da hegazti batzuen etzale-kuetan, esaterako, bele eta usoenetan. Zelai irekian erbiak ere harrapatzen ditu, tamainaz hiru aldiz handiagoak izan arren. Burutik ora-tzen ditu, heuren burua ehizakiarekin batera lurretik iraulkatzeko. Erbia hil ondoren, eta aztoerea hiru aldiz txikiagoa izanik, ez du airean hainbeste pisu eramaterik, eta bere harrapaki-naren ondoan geratzen da hainbat egunetan, gosea asebate eta gero.

Batzuetan lur zabalerak kurritzen ditu abiadura handian, biktima, izuak jota, bere aurrean ager-tu arte.

HABITATA: hegazti geldikorra dugu aztoerea



gure basoetan. Mila metrotik gora umatzen duten popu-lazioetako gazteak soilik aldatzen dira lurralde batzuetatik besteetara lurralde propio batean finkatu arte.

Beren ehiza-lurraldeak 7 kilometroko diametroa izan ohi du, baina neguan, harrapakinen urritasunagatik, feudo horiek askoz ere handiagoak izaten dira. zuhaitzak dituzten edozein motatako eremuetan bizi da, baina nahiago izaten ditu gizakien eraginetik urrun dau-den baso helduak.

HEDAPENA: aztoerea basorako jaioa da, hosto galko-rreko zuhaitz eta koniferoen artean bizitzeko, eta, beraz, Eurasian eta Iparramerikan banaturik dago. Bere pre-sentzia ugariak subespezie asko gertarazi ditu, elka-rrengandik beren tamainagatik batez ere bereizten dire-nak. Europan 6 subespezie bizi dira, klimatologia ezberdi-netara moldatuak. Horrela, aztoere ipartarra, taigan bizi



dena, oso galanta da, gure basoetan bizi den aztoere ibe-riarra, ordea, laurden bat txikiagoa da.

EUROPAKO SAIK

Amerikako zazpi sai espezieez gainera, kataridoen fami-liaren barruan sailkatzen direnak, Europako 15 sai espezieak akzipitrikoen familiakoak dira, familia horren barruan daudela, berebat, arranoak, gabiraiak, mirotzak, zapelatzak edo miruak.

Euskal Herriko basoetan bi espezie dira bakarrik habia egiten dutenak: sai arrunta, beste 6 espezierekin batera Gyps generokoa dena, eta sai zuria edo sai egiptiarra, Neophron generoko kide bakarra dena.

Ugatza (Gypaetus barbatus) dugu beste sai espezie bat. Euskal Herrian habiarik egiten ez duen arren, hegazitzen batzuk ikus daitezke neguan Aralar mendizerrako Gipuzkoako isurialdetik, Nafarroako Pirinioetan egiten baitute habia.



SAI ARREA, ZUZPERTZEN

NOLA ANTZEMAN: sai arre-aren anatomian bereizgarri dira buru eta lepo lumarik gabeak, krema kolorezko lumatxa motz batez estaliak baina. Gorputzaren gainerakoan lumajeak kolore marroia ager-tzen du, lehoiak duenaren an-tzerakoa, hortik bere izen arrun-ta, bizi den harkaiztegi-tan iku-sia ez izateko baliagarri zaiona. Lepo oinean, sorbalda gainean, luma zuri ugari ateratzen zaiz-kio, idunekoa gisa, eta papar gai-nean bi soilune edo lumarik gabeko alde ditu, kolore gorri, urdin eta zuri bizikoak, hegaz-tiak nahita agerian jartzen ditue-



nak generokideei bere emozio egoe-ra erakusteko.

Hego luze-zabalen puntetako lumak, primarioak, txirbilik gabeak eta bel-tzak dira, hego-erpin biribildua era-tzen dutela. Isats iluna laburra eta karratua da. Sai arruntaren luzera 97 eta 104 cm bitartean dago eta bere pisua 6,5 eta 8 kilo bitartean. Harrapari hau interes berezikotzat jotzen da Euskal Herriko Espezie Mehatxatuen Katalogoan.

BIOLOGIA: heriotzaren iragarle honen izaera eguargitara azalera-tzen da horizontetik lehenengo argi-izpiak ageri orduko. Orduan, hegazti hauek, hego-muturretik muturrera 2

metro eta erditik gora zabal, Euskal Herrian bizi diren handienak, 7,5 kilogramoko pisura iristen direnak, gaua eman duten labarrak utzi eta zeru urdina altxatzen dira kiribil handiak eginez, haizeboladez baliatuta, harastutela bila joateko.

Urte askotan iritzi zen sai arreek gorpua aurkitzen zituztela usaimenaz baliaturik, amerikar kide batzuek, aura izenekoak kasu, kontinente horretako hegoaldeko oihanetan egiten duten bezalaxe. Baina 1964an, Kenneth Stager

naturalistak, sai amerikar horri buruz azterlan zehatzak egin ondoren, frogatu zuenez, sai amerikarra zen usaimena garrantzirik zeukan hegazti gutxietakoa. Izan ere, gero, europar saiei buruz egindako azterlanek agerian jarri dute espezie honen usaimena oso txikia dela eta, beraz, ez direla horretaz baliatzen harrapakinak aurkitzeko, baizik eta beren ikusmen izugarri zorrotza erabiltzen dutela. Horrez gainera, halako portaera sozial berezi bat agertzen dute: eragin-aldeak banatzen dituzte bakoitzak ikuskapen egokia egiteko, eta koloniako kideen arteko ikusizko kontaktuari eusten diote gorpua erraz aurkitu ahal izateko moduan.

Oro har, beleak eta mikak izan ohi dira abere hilak aurkitzen lehenak, eta saiak sarraskijale txiki horien kontzentrazioei behatzera mugatzen dira jakia zehazki non dagoen detektatzeko. Janaria aurkitutakoan zuzen-behera oldartzen dira, eta zirkulu batzuk egin eta gero, piezatic halako distantzia batera pausatzen dira. Bere lurreratze moduak saitegietan dauden beste banako batzuk erakartzen ditu. Era horretan, oso denbora gutxitan, alde bateko ia sai guztiak bildu dira hilaren inguru.

Harrapari hauek, harrigarriro, oso fidagaitzak dira haratustela jatera hurreraterakoan, oturuntzari ekin baino lehen hain-



bat ordutan, edo are egunetan, itxaroten ohi baitute, abereak azken heriotza-kurrunkak egin ez baditu.

Sekulan ere ez dira gorpua zati-zati egitera oldartzen, goseak jota egonda ere; ordea, taldeko bat izan ohi da, oro har, agian gosetiena, begiak edo mihia mokokatzer aurrenik hurreritzen dena, beleek eta mitek lehenago jan ez badiutze. Jarraian, mokoa sastatzen du aberearen sabelean eta burua sartzen du zulotik, erraiak jateko. Bitartean, zain dagoen taldea artegatu egiten da, gero eta gehiago, eta beste kide goseti bat hurreritzen da jatera, eta borroka bat hasten du jaten ari zenarekin, borroka amorratua barik erritual baten antz handiagoa duena. Horrela, harrapakina jateko borrokak jarraitzen dira bata bestearen ondoan, eta taldeko gehienak, artega, borrokaldiak aprobetxatuz, gorpuari geratzen zaiona jatera oldartzen dira. Harrigarria da ikustea nola behi edo ardi hil batetik minutu gutxi batzuetan eskeletoa baino ez den geratzen. Alderdi honetan, Afrikako sai bizkar-zuriak du errekorra, bi minututan kilogramo bat haragi jateko gauza baita. Oturuntzaren ondoren hezurrei itsatsita geratzen diren haragi zatitxoak aprobetxatzen dituzte basoko nekrofago txikiek, hau da, mitek eta beleek.

Saiek sabel-bete handiak egin ohi dituzte, eta, batzuetan, oturuntza oparo baten ondoren, nekeza gertatzen zaie hegan egitea, eta batzuek, haize boladak aprobetxatuz, ozta-ozta hegan egiten duten bitartean, besteak hainbat ordutan geratu behar dira gorpua- ren ondoan, janaria digeritu arte.

Labarraren itxura malkartsuarekin bat datorrela, sai arrearen itzal-errainua ageri da bisuts bortitzek, euriak edo elurak zigortutako harkaitz-hormetan, abenduaren azken egun labur eta hotzetan, egun hauetan hasten dela hegazti honen araldia.

Goiz argi eta eguzkitsua iristean, bi silueta handi marrazten dira zeru urdin hotz amaigabearen kontra, estaldura aurretiko eztei-hegaldiari ekiten diotelarik.

Arrak eta emeak maitasun-jokoari ekiten diote guztiz sinkronizaturik, eta airean planeatzen dute, altuera handian, oso elkarrekin, hego-muturrekin ozta-ozta ukitzen dutela elkar. Emeak, orduan, hautsi

egiten du une liluragarria eta zuzen-behera oldartzen da abiada handian, atzean bere laguna uzten duela; honek unerik galdu gabe atzetik jarraitzen dio, akrobazia sinestezina imitatuz. Orduan, arrak pertsekuzio bat hasten du eta hegada indartsuekin laster heltzen dio emeari, eta gainean jartzen zaio zenbait segundotan. Ondoren, gora egiten du eta berriro ekiten dio maitasun erakuste horri.

Josteta jarduera bizia amaitzen da bikoteko kide biek zirkuluak egiten dituztenean abiadura handian habia egiteko aukeratu dituzten labarren gainetik. Leku horrexetan, hain zuzen ere, egiten dute estaldura, lepo eta burua kulunkatzen duten bitartean bata besteari urreratuzko erritual harrigarri bat egin eta gero.

Bikotearen sendotasuna erakusteko, kideetako bat hil arte loturik eta fidel iraungo baitu, estaldura errepikatzen dute behin eta berriz.

Eztei-jarduerak suposatzen duen barbuileriak bultzatuta, heldutasun sexualera iritsiak ez diren eta, beraz, oraindik, bikotea egin gabe dauden koloniako sai gazteek helduen portaera imitatzen dute eta koloniatik hurbileko haitzetan jartzen dira estaldura ezina burutu nahian.

Egindako bikoteak habia egiteko aukeratu duten harkaitzegira joaten dira eta bertan ematen dute gaua. Egunsentiarekin batera hasten dira habiak egiten, euritik edo elurretik babestutako leku iritsi ezin eta iritenetan.

Sai arreen habiak beren irazkinez zuriz margoturik egon ohi dira, eta gainerako hegaztienak ez bezala, habien tamainak ez du hegaztiaren tamainarekin zerikusirik, izugarri txikiak izaten baitira. Bikoteko kide biek egin- kor parte hartzen dute materialak biltzen -adarrak, hostoak, ilekiak edo lumak-, edonola metatzen dituztenak. Banako batzuk auzokoei materialak lapurtzen ausartzen dira, baina gure harkaitzegietan habiak ez daude inoiz ere bata bestetik bi metro baino gutxiagotara, alde hori norberaren lurraldetzat jotzen dutela.

Materialaren lapurreta hegaztie-



lumak harrotzen dituela arrautza estaltzeko.

Marxoaren amaiera aldera, udaberriaren sorrerarekin, jaiotzen da sai txikia, begiak guztiz itxita eta krema-kolorezko lumatxa bigun eta urri samarra dituela.

Maitasun handiaz zaintzen dute gurasoek hain izaki txiki eta babes gabe hori, babesteko eta jaten emateko txandakatzen

direla; baina denbora igaro ahala, nahita aldatzen dituzte otorduak.

Txitoaren lehenengo bizi egunetan, haren mokokadaz zirikatuta, helduek jan batzuk eskaintzen badizkiote, ore lodiaren eran goitikatzen dituztenak, hilabete eta erdi bete izanez geroztik jan bat bakarrik ematen diote egunean, eta are jan bat bi egunez behin, lehenengo hegaldiak egin aurre-aurreko garaian. Baina ez da janaldien ugaritasuna bakarrik aldatzen dena, baizik eta goitikutako janariaren kantitatea ere aldatzen dela, askoz ere handiagoa da txitoxa hazten den neurrian, eta irenste-maila ere bai, ez baitago hain digerituta.

Bi hilabete eta erdi dituela, gurasoak ausartu egiten dira txitoxa bakarrik uzten, janari bila doazenean, behin egitura nerbioso eta muskularrak hobetu eta egokitzeko eboluzio psikikoa egiaztatuta ondoren.



Esaterako, lehenengo bizi astean txitoa axolagabe geratzen da habiaraino iristen den edozein arrotzen aurrean, geldi geratzen dela begiak itxita. Geroztik, erreazio positi-boa agertzen du bere amaren moko gogorarazten dion edozein objektu luzangaren aurrean, eta portaera janari-eskalearen eragingarri gertatzen zaio. Laurogeita hamar egun dituela, kontraste handia dago txitoak hartu duen tamaina eta indar izugarriaren eta bere erreflexu geldo eta mugimendu traketsen artean, dagoeneko guztiz lumaturik dagoela. Izan ere, oraindik ez da habia uzteko gauza, ez bada erlaitzetatik mugitzen den aldi laburretan. Lau hilabete dituenean, orde, gazte ausarta bilakatu da, egunean hegan egiteko teknika berria ikasten duena. Zenbait egunetan gurasoek jaten ematen jarraitzen diote, haratustela bere kabuz bilatzeko behar adinako trebetasuna hartu duen arte. Bere hegoen indarrak independentzia ematen dio sai arre gazteari, eta bere hegada dela bide familiarik urrundu, irailaren amaiera aldera gertatu ohi dena, eta bizimodu erratu bati ekiten dio habitat faboragarria aurkitu arte. Kolonia batean ezarri baino lehen, ehundaka kilometro egin ohi ditu zerra eta harkaiztegietatik nora ezean ibilita. Harrapari handiek bezala, denbora luzea behar du heldutasun sexualera iristeko, lau urtekoa izan ohi dena, eta, ohiz bestera, zazpi eta zortzi urtetara luza daitekeena.

ELIKADURA: bere berezitasunik garrantzitsuena, guztiontzat ezaguna, elikatzeko era da, sarraskijale bait da erabat.



HABITATA: beti heriotza gainetik hegan egiten duten harrapari hauek kolonietan ezarri ohi dira mendizerretako haitzar-te eta gailurretan, eta bertatik barreiatzen dira janari bila joateko; beraz, gure lurraldearen parte handi batean ikusiak izan daitezke, eta, batez ere, mendialdeetan eta beren inguruetan, dela abeltzaintzazko aranean edo landako larreetan.

HEDAPENA: hegazti honen banaketa-lurraldean sartzen dira Afrikako iparraldea, Asia txikia eta erdi-hegoaldekoa, eta Europa. Europari gagozkiola, hegazti hau aurki daiteke Iberiar penintsulan eta Balkanetan -Grezia, Jugoslavia ohia, Bulgaria-, Frantzia, Italiako iparraldean, Cerdeña eta Sizilian.

SAI ZURIA, SAI IBILTARIA

NOLA ANTZEMAN?: bere kanpo morfologia hain berezia denez gero, beste hegaztiekin nahastezina da.

Isats kuneiformeari eta hegal luzeei begira, ugatzaren antzik baduela esan dezakegu; hala ere, bere lumaje zuri-beltzak, zangorik gabeko amiamoko lepatotz baten itxura ematen dio. Sai arrearekin gonbaratzen baldin badugu, sai zuria tamaina txikiagoa dugu eta lepoa luma horixkez estalirik dauka.

Hegan ari direnean oso itxura bereizgarria dute: gorputzeko kolorekoa guztiz zuria, arraun-lumak erabat beltzak, punta zorrotzeko hegoak; eta ziri itxurako buztana. Ale gazteak erabat arreak dira eta ugatz gazteen antzeko itxura dute, nabariki txikiagoak badira ere. Kolore arrea, argituz doa bosgarren urtera arte, eta orduan lortzen dute behin-betiko lumadia sai zuriek.



BIOLOGIA: otsailaren hasieran itzultzen dira berriro eta kolonizatzen dituzte gure basoak. Alabaina, hegazti helduak soilik itzultzen dira, gazteak afrikar lurraldeetan geratu ohi dira hiru urte dituztela heldutasun sexualera iritsi arte. Orduan hegan egiten dute beren jaio-bazterretarantz eta bertan egiten dute bikotea, ugaltzeko, lokarriak bizialdi osoan iraungo duela. Sai zuri heldua, 58 eta 66 zentimetro bitarteko luzera duena, urrunetik ikusita, amiamokoarekin nahas daiteke, lumaje zuri

eta beltzagatik eta beren tamaina berdintsuagatik; baina hurbiletik ikusita, krema kolorezkoa dela egiaztatzen da, eta garbi ikusten dira bere isats kuneiformea eta lepoa bildua. Gure basoetako bizilekuetara iritsi eta egun gutxi igarota ikus daitezke arra eta emea, habia egingo duteneko harkaiztegien gainetik, lehenengo eztei-hegaldiak eginez eta, aldi berean, habia jarriko duten lekua ikuskatuz. Normalean, euritik

babesturiko haitzulo batean jarri ohi dute, baina ohiz kanpoko kasuetan habia zuhaitz batean jarria ere ikusi da.

Habiaren forma eta tamaina oso aldakorak dira, kokalekuari egokitzen baitzaio. Normalean, 80 zentimetroko diametrokoak dira, baina, horietatik, bakarrik erdiko azalerako 40 zentimetroak estaliko dira kontu handiz ile eta ilekiez, hortxe erruten baitu emeak, martxoaren amaiera aldera, bi arrautza -batzuetan 3-, hiru edo lau eguneko tartean. Arrautzak zurixkak dira, krema kolorez pikardatuak, batzuetan hondoaren kolorea desagertzearaino, hain izan daitezke pikartak ugari. Pisua 80 gramo ingurukoa izaten da eta tamaina 64 x 48 eta 66 x 50 milimetro bitartean egoten da. Sexu biek parte hartzen dute inkubazioan, aldika txandakatzen direla arrautzen eklosiora arteko sei asteko aldian.

Jaiotzerakoan, 3 edo 4 eguneko tartea dutela, txitoek taminaren diferentzia nabarmena agertzen dute. Horregatik, sarri askotan, txito txikiena goseak jota hil ohi da, ez baitu gurasoek eramaten dituen janariagatik handienarekin lehiazterik. Galera horiek, harraparien artean oso sarriak direnak, ez dira gertatzen janaria ugari deneko leku edo urteetan, beraz, jaiotze-tasaren zuzentzaile naturala baino ez dira, populazioaren kopurua baliabide eskuragarri egokitzen dietena, berezko oreka hautsi ez dadin.

Txitoak lumatxa grisaz estalita agertzen dira jaiotzerakoan, gero beste lumatxa zuri batez aldatzen dutela. Laster irte-ten zaizkie erre kolorezko lumak. Aurpegia biluzik geratzen zaie, baina beren larruazalaren tonua oraindik ez da helduen hori-laranja, gris motela baizik. Luma-berritze bakoitzean kolorea argiago egiten zaie, eta 5 urte dituztenean helduen lumaje zuria hartzen dute, hegoetako luma primarioak izan ezik, guztiz beltzak baitira.

Gurasoek ahoan zein paparoan eramaten dute janaria habiara, eta bertan zati-zati egiten dute eta eskaintzen diete txitoei, hauek txikiak diren bitartean. Hilabetea ez duten



bitartean, txitoak ez dira beren kasa jateko gai.

Sai zuri heldua ez dira beren kumeekin beste hegazti sarraskijale batzuek bezain axolatiak, eta hazi samarrak direnean aldi luzeetan utzi ohi dituzte. Gazteek egunaren aldi on bat ematen dute bakarrik, gurasoak, habiatik hurbil egonda ere, ez ohi baitira habiaratzen. Txitoak 63 eta 65 egun bitartean egon daitezke habian. Denboraldi hori igarotakoan, beren hazi-aldean ikus daitezke gurasoetako bat lagun dutela, eta gurasoekin geratzen dira janaria bilatzen ikasi arte.

Laster asko, abuztuaren amaiera aldera, edo gehienara jota irailaren hasieran, migrazioaren deia sentitzen dute eta Saharaz handiko Afrika aldera doaz, Mauritaniatik Sudanera, Gibraltarko itsasarte igarota.



ELIKADURA: Animaliatxo hilak ditu batez ere sai zuriak janari, esaterako, untxiak, hegazti kolpatuak, urlehorrak, narrastiak eta are arrainak ere, inoizka, ibaiak lehortu eta haiek putzu txikietan geratzen direnean atzematen dituenak.

Trebea da, berebat, arrautzak bilatzen. Beste hegazti batzuei lapurtu ondoren, leku jakin batera eramaten ditu, eta, han, harrien kontra botatzen ditu beren edukiaz elikatzeko. Gure basoetan ia ez du agertzen bere portaeraren alderdi hau, baina afrikar kontinentean, arrautzen lapurretan espezialista erabatekoa izateaz gainera, ostrukaren arrautza batera iristen denean, arrautzaren taminagatik, haitzen kontra botatzeko, ahoan eramaterik ez duenez gero, alderantzizko operazioa egiten du, eta harri bat hartzen du mokoaz eta egonari handiz behin eta berriz botatzen du arrautzaren kontra,

oskol gogorra arrailtzea lortu arte. Harrapari hau dugu, Galapago uharteetako txontarekin, helburu bat lortzeko tresnak erabiltzen dituen hegazti mutxietako bat; izan ere, txonta hori hezur batez baliatzen da haitz arrailen eta landareen sakonean ezkutatzeko.

Sai zuriak izan ohi dira nekrofago handietarik haratus-telak hautematen dituzten lehenak, korbido zorrotzen mugimenduei etengabe begira baitaude. Baina izaeraz sarraskijaleak badira ere, etxe-abereen edo belar-jale basatien gorpu handiak ez dira haien baliabide bakarrak, eta ez zaizkie funtsezko bizirauteko; izatez, sarri arreetatik ez balitz, hauek baitira gorpuak zati-zati egiten dituztenak, sai zuriak ez luke gorpu horiek baliatzerik, bere mokoa ozta-ozta baliagarri baitzaio begiak eta haratustelen zati bigunen bat jateko.

HABITATA: saiek ez bezala, hegazti migratzaileak ez baitira, sai zuri-beltzek habia egiten dute udan gure basoetan eta udazkeneko joaten dira afrikar lurretara, berriro ere itzultzeko, martxoaren erdi aldera, aurreko urteetan okupatu zituzten labar, erroitz eta ibai-haitze-bakietara, haitzarten babespean habia egin zuen tokietara. Ez ohi zaie gustatzen mendi garaiko harkaiztegietan finkatzea; altitude baxu edo ertainean daudenetan baizik, eta bertatik arakatzeko dituzte espazio irekiak, larreak, soroak edo sastrakaldeak haratustel bila.

HEDAPENA: harrapari indo-afrikar hau mediterraneoko Europan, Afrikako ipar eta ekialdean eta Asian banatzen da, galzori larrienetakoan dagoela. Izanez ere, azken hamarka-



dotan atzerakada nabarmen bat jasan du europar kontinente osoan, eta mendearen erdi aldera landa-zabortegi iberiarretan ugari ibiltzen bazen, batez ere Andaluzia eta Extremadurakoetan, Afrikako leku askotan egiten jarraitzen dutenez, gaur egun, populazioen beherakada izugarria jasan dute. Horren arrazoiaren artean ditugu abeltzaintzen erregimen aldaketa, zerupean larratzetik akuilueta igaro baitira, abere hilak lurperatzeko edo, landako berezko garbitzaileengandik urrun, putzu edo ustel-tokietara botatzeko ohitura, eta pestizida eta herbiziden abusua.

UGATZA, LABARRETA KO AHALTSUA

NOLA ANTZEMAN?: ugatzaren altuera 120 eta 140 zentimetro bitartean dago, eta bere pisua 6 eta 7 kilogramo bitartean.

Lumaje nabarmena agertzen du, gainerako hegazti sarraskijaleengandik bereizten duena. Eztarikoa lumak eta papar eta sabelaldekoak gorritzak dira, eta kontraste bizia egiten dute buruan dituen zuri-horixekin. Begietatik mokorainoko aldean inguru-xingola beltza du, maskara baten antzean. Mokoan, inguru-xingola beltz hori zurda-sorta bihurtzen da, behe-barailatik hedatu eta, bizar antzean, horren azpian erori eta gailentzen dena. Hortik hegazti honen izen zientifikoa, *Gypaetus barbatus*, sai-arrano bizar-duna adiera duena.

Buru gainean luma tente batzuk agertzen ditu, asaldaturik dagoenean zabaltzen dituenak, arranoek egiten duten bezala. Azpian, begi horixka eta esklerotikako zirkulu gorri-min batez inguratuek begirada mehatxagarria ematen diote,



moko grisa luze, koadun eta amaieran beltz baten gainean nabarmentzen dena.

Bizkaraldea eta isatsa gaur bezain ilunak diren arren, luma bakoitzak lerro zurixka agertzen du erdian, hegoei distira metalikoak ematen dizkiena. Hanketako tartsoak lumaz jantziak dira eta atzazalak luzeak.

Ugatza dugu Europako harraparik handiena, 2,80 metroko hego-luzera hartzen baitu -iraungi baino

lehen, Alpeetan 3 metroko hegaztiak aurkitu ziren baina-, eta horrek planeatzaile paregabea egiten du, lekualdatzeko korrante termikoez baliatzen dena.

Hegazti honek ia 80 kilometro orduko abiadura hartzen du hegan, metro bat altitude gaitzen duela aurreranzko hamar metroko. Goranzko haizerik aurkitzen ez badu, 20 kilometroko planeatzea egin dezake hamabost minutu baino gutxiagotan, baina korrante egokia aurkitzen badu, bere lurral-

de osoa gain-hegatzen du, 40 eta 135 kilometro karratu bitarteko azalera izan dezakeena, bere hego egundokoak behin ere astindu gabe.


BIOLOGIA: hegazti geldikorrak ditugu ugatzak, eta lurralde propioa dute bizitza osorako, bikotekidearekin konpartitzen dutena. Lurralde horretan badira leku batzuk garbi mugaturik daudenak, esaterako, habiagintza-lekua, habia inguruko aldea eta bikotearen eragin-aldea, beste bikote batzuen lurraldeei gainezar dakiekena. Habiagintza-lekua habia kokatzen den hormara mugatzen da, leku sakratua dela geroko gurasoentzat, eta ez diote ezein hegaztiri uzten bertara iristen. Habia inguruko aldea, berriz, aran bat izan ohi dena, ez dago hain defendaturik, eta beste hegazti sarraskijale batzuk igaro daitezke bertatik.

Lurraldeagatiko borrokak gertatzen direnean, edo sai-arrano batek harrapakin bat lapurtu nahi duenean, hegan egiten du aurkariarenganantz eta kolpeak ematen dizkio hego-muturrekin. Aurkariak ihes egiten badu, jarraiki egiten dio eta haren gainean jartzen da atzaparrak irekita oldartzen zaiola.

Udazkenaren erdi aldera, uda bitartean bakoitza bere aldetik ibiliak ziren bikotekideak elkartu egiten dira habiak berrizatzeko, lurraldean lehengo urteetatik eginak eduki eta bi eta bost bitartean izan daitezkeenak.

Hegazti honek etzaleku ezberdinean egiten du habia urtero, txitoek "etxean" ematen duten egonaldi luzean sortzen diren bizkarroiak desager daitezten. Izan ere, ugalketa-ziklorik luzeenetakoa du eguneko harraparien artean, zortzi hilabetekoa baita emeak lehenengo arrautza erruten duenetik txitoak independizatzen diren arte. Beraz, ugatz-bikotea lau hilabetetan baino ez dago urtean hazkuntzako zereginetatik libre.

Urriaren amaiera aldetik ikus daitezke kide biak adarrak eta material ezberdinak habialekura bidean daramatzatela, eta bertatik hurbil uzten dituzte beren obra egiteko materialok. Habia egin ohi dute hormatzar malkartsuetako haitzuloetan edo euritik babesturiko erlaitzetan. Tamainari dagokionez, 1 eta 2 metro bitarteko altuera eta 1 eta 1,5 metro bitarteko zabalera izan ohi ditu. Kanpoko egitura koniferoen adarrez eginda dago, eta barruko kofagunea orbelak, ileak, zurdak,



helduen sabelaldeko lumak eta animalien larruak erabiliz estaltzen dute.

Abenduan edo urtarilean gertatzen dira eztei-hegaldiak, eta arrak, urtearen gainerakoan isil, garrasi batzuk jaulkitzen ditu emearen aurrean. Bikoteak aralditik kanpo ere, lurraldeko lekuren batean elkarrekin topo egiten dutenean, hegaldi zirkular laburrak egiten baditu, garai honexetan gertatzen dira beren agerraldi ikusgarrienak, beti habia inguruetan: bikoteak igoerak egiten ditu airean, zirkulu meharrek eginez, gero altuera handitik erortzeko.

Horren ondoren gertatzen dira estaldurak, eztei-hegaldiei amaiera emanez, hainbesteko arduraz egin duten habian bertan. Emeak, maitekor, agurtzeko keinu erritualak egiten dizkio arrari, honek kulunkatu eta bere eztarikoa kolore laranja erakusten dituen bitartean. Gero, arra gaineratzen zaio emeari, hegoak zabalduta orekari eusteko, eta bere kidearen garondoa mokokatzen du. Estaldurak 20 segundo baino ez dirau, eta lehenengo estaldurak gertatu zirenetik hilabetea igarota, urtarilaren erdi aldetik otsailaren lehenengo hamabostaldira bitartean, erruten ditu emeak bi arrautza zuri-arrexka, lau eguneko tarte batean.

Berehala ekiten dio inkubatzeari, arraren laguntza izaten duela askotan zeregin horretan.

Ugatzak klima-egoerarik txarrenean egiten du habia. Saiek beren arrautzak abenduan erruten badi-tu, ugatzek baino altuera askoz ere txikiagoetan egiten dute, ugatzek habiagintza-kota goi-mendiko beste hegazti batzuenaren parekagarria delarik.

Horrela, otsail betean, eta batzuetan gaueko tenperatura zero azpitik 15 gradutara jaitsi dela, elurretik eta haize jelatsutik babesteko egoki kokaturiko etzalekuan, bi arrautza erruten ditu emeak oztopoak oztopo. Batzuetan, arrak kordatu eta harrotu egiten du habiaren barrualdea estaltzen duen ilekia, beroari eusteko.

Arrautzak bi hilabetez berotu ondoren jaiotzen da lehenengo txittoa, eta lau egun geroago bigarrena, baina azkeneko hau luzaro gabe hil ohi da ahul-ahul eginda. Txittoa lumatxa grisa batez estalita jaiotzen da, eta gurasoek gau eta egun estaltzen dute haren lehenengo 12 bizi egunetan, eta jaten ematen dizkiote hezurretatik erauzten dituzten tendoi, larru eta gihar zati xumeak. Maitekiro ere zaintzen dute bi gurasoek, laguntzen diote jarreraz aldatzen, garbitzen dizkiote irazkinak, leuntzen diote lumatxa...

Hilabeteko adina ez duen bitartean ez dute bakarrik uzten habian. Orduan, janaria eskaintzera mugatzen dira, ahoan sartu gabe. Haren lumatxa grisak tonu marroi argitsua hartzen du, eta laster ageri zaizkio luma nagusien orratzak.

Txittoa lau hilabetetan egoten da habian, lehenengo hegadei ekin eta helduen tamainaren antzeko-ira iritsi arte. Gurasoen habian ematen duen egonaldi luzea zor dakioke hezurak aprobetxatzeko teknikak ikasi beharri. Habian ematen dituen azken egunetan salto handiak egiten ditu eta indar handiz astintzen ditu hegoak, gurasoak, hegan egitera bultzatzeko, habiatik hurbil, baina pausatu gabe, hegan igaro-tzen diren bitartean. Azkenean, goseak eraginda, gaindi-tzen du beldurra eta jauzi egiten du, hegan egiten dutela hurbileko harkaitz bateraino.

Planeatze laburrak egiten ditu egun batzuetan, eta, azkenik, hegadari ekiten dio gurasoekin batera, mugimendu bakoi-tza imitatzen duela eta hegadaren teknikak menperatzen ikasten duela. Abuztuan gurasoei jarraitzen die gazteak, haiek, janari bila, lurraldea azterkatzen duten bitartean. Janaria aurkitu dutenean, airetik botatzen dizkiote hezurak, gazteak jatera jaits dadin lurrera. Egur asko ere botatzen



dituzte puskalekuetara, kumeak hezurra nola puskatu behar den ikas dezan.

Irailaren amaieran, udazkena iristen denean, independizatu egiten dira gazteak, eta neguan gurasoen lurraldea utzi eta feudo propioa bila joan ohi dira, bizirauteko baldintza egokiak dituen feudo propioa bila.

Bost urte dituztela iristen dira heldutasun sexualera, eta lumajea, arre iluna lehen bizi-urte bietan, agitu egiten da arian-arian, eta laugarren urterako helduenaren antzerakoa da, baina burua, argia barik, iluna da oraindik. Harrigarriro, mundu osoan gatibutasunez denborarik gehien bizi izan den ugatza Anboto mendian mendearen hasieran harrapaturiko bat izan zen, gero 50 urtetan kaiola-turik egon zena.

Hegazti hauek oso erraz bezatu eta hezten dira, jabea eza-gutu eta obeditzeraino.

Hogeita hamarreko hamarkadan utzi zion azken ugatz-bikoteak Aralar mendizerran habia egiteari; bertatik doilorki arpilatuak izan ziren gasezko ozeano urdinaren jabe hauek. Eta geroztik ez da habitat horietan beste hegaztirik ikusi.

ELIKADURA: mendizerra malkartsu eta altuenetako har-kaiztegi eta labarretatik abiatzen da ugatza goizero, oso goiz, eguzkia irten baino lehenago eta haize epelaren korronteak eratu ere baino lehenago. Habia utzi eta oldartu egiten da, janari bila, hegada baxu eta geldoan. Arretaz arakatzen ditu mendizerretako mazelak eta aranak, zer bat oso nabarmen gertatzen zaion arte. Orduan, begiratzen du airetik, igarotzen da hainbat aldiz bere nahiaren gaiaren gainetiko hegan, eta segundo batean bat-bateko norabide aldaketa egiten du eta zuzen-behera oldartzen da. Batzuetan, udaberriaren etorreran, animalien gorpu asko aurkitzen dituzte era honetan, elurrez estalita zeudenak. Haize gogorra denean, haizeaz baliatzen da gora igotzeko,

haren kontrako hegan jarrita eta geldi egonda, eta gora igotzen da horrela, kometa bat bailitzan, hegadaren tekniken domeinu ikusgarria agertzen duela. Are neguko egunik txarrenetan ere, haize eta euri bortitzenak diren horietan, saiarranoak planeatzea egiten du goietan, bere norabidea behin eta berriz zuzentzen duela hego eta isatsaz baliatuta. Heriotza sumatzen du basoan airetik, eta egonarriz itxaroten du bere txanda; nekrofago txikiak, beleak eta erroiak joango dira lehenengo, eta miruak eta saiak gero.

Agertzen direnen igaroak haragirik gabe uzten du animalia, eta, bitartean, ugatza zain dago aldearen gainetik hegan, edo hurbileko leku batean pausatuta, edo gune zehatza buruan sartuz, alde egin eta geroago itzultzeko. Gainerako sarraskijaleek gorpua bertan behera utzi eta gero, "maskaradun hegaztia" bertaraten da hezurak aukeratzera. Gorputz-adarretakoak ditu gogokoenak, baina osorik irensteko handiegiak direnez, bere atzaparretan garraiatzen ditu berarentzat oso ezagunak diren leku harritsu zehatz batzuetaraino, puskalekuetaraino, eta airetik botatzen ditu. Puskatu ahal izateko, altuera egoki bateraino igotzen da -20 eta 150 metro bitarteko altueraraino, nolako hezurra den edo puskalekua zein eraginkor den-, haizearen kontra jartzen da ia ibilge egoteko eta zein leku harritsutan eroriko den kalkulatzeko, libratzen du hezurra eta, lurrera iritsi baino lehen, zuzen-behera oldartzen da haren traiekto-ria egiaztatzeko. Hezurra hausten ez bada, berriro ere ekiten dio. Gero hezur-muina ateratzen du eta pusketa txikiak bilatzen ditu irensteko. Paleta-hezurak eta muinik gabeko beste batzuk guztiz karraskatzen ditu bere mokoaz baliatu-ta.

Ugatzak oso hegazti zuhurrak dira, eta janariak gordetzen dituzte urri aldiko egunetarako. Askotan, botatzen dituzte hezurak eta ez dira jatera jaisten; ordea, metatu egiten dituzte beren puskalekuan zer janik ez dagoen egunetarako, eta gehiago bilatzera doaz. Ohitura hori garrantzi handikoa da hazkuntza aldian, txitoek egunean behin baino gehiagotan jan behar baitute.

Hegazti lurraldekoiak diren aldetik, puskaleku batzuk izan ohi dituzte beren feudoan. Batzuk urte osoan erabiltzen dituzte, eta kokaturik daude elurrez sekulan estaltzen ez diren lekuetan, neguan erabili ahal izateko; beste batzuk, berriz, batzuetan bakarrik erabiltzen dituzte.

Habia normalean puskaleku finko batetik hurbil dago; pus-



kaleku hori, gainerakoak bezala, axaleko haitz makurtu handiez beterik dago hegaztiari lurreratzen errazteko. Tamaina ertaineko hezurak oso-osorik irensten ditu harrapari honek, bere urdail-urinen azidotasan apartari esker, jaten duen materia organikoaren parte handi bat digeritzen baitu, eta lumak, ileak edo apatxak soilik iraitzen ditu ahotik, 10 zentimetrotarainoko diametroko pilotetan.

Goseak jotzen badu, harrapakinak lapurtu ere egiten dizkie arrano beltzei eta haserre egiten die erroiei eta belatxingei haratustelak bertan behera utz ditzaten.

HABITATA: ugatza oso harrapari zorrotza da habitatari dagokionez; goi-altitudeko mendikatea edo mendiguneetan kokatzen da, beharrezkoa baitu izadi-baliabideak ukitu gabe egotea. Gizakiak gertarazten duen habitat horien suntsipe-na eta eraisten duten su-armak dira espezie honen iraungi-penaren arrazoi nagusiak, mehatxaturik dagoela bere bana-keta-alde osoan, hots, Europa eta Asian.

HEDAPENA: duela bi mende -1.800 urtean-, ehun hegazti inguru bizi ziren Alpeetan, baina 1913an eraitsi zuten haietarik azkena Aostako aranean. 1986an jaregin zen gatibutasunez hazitako lehenengo ugatza, eta, gaur egun, hegan ikus daitezke, berriro ere, mendikatea honetan, gizakiak berriro sartu izanari esker.

Europa osoari dagokionez, Pirinioetan soilik bizi da maki-na hegalaria hau, bai espainiar isurialdean, Huescan eta Nafarroan, bai frantziarrear, eta kalkulatzenez, populazioa ez da 50 bikote baino gehiagokoa, Iberiar penintsulan behinola izan zuen banaketa zabalaren erlikia bat; izan ere, Kantauriar Mendikatean, Gredoseko mendizerran, Iberiar mendi-multzoan, Sierra Nevada, Las Nieveseko mendietan... Sierra Morena mendizerran bizi izan zen azken ugatza, berrogeiko hamarkadan jaioa zen ar bakar-ti bat izan zen, 30 urte baino gehiago labarretatik nora ezean ibili zena, ondorengorik gabe hil zen arte.

LIZTORJALEAK

Liztorjaleak, kontrakoa pentsa baliteke ere, ez dira benetako belatzak, akzipitridoen familiaren barruan bilduta baitaude aztoze, gabirai edo zapelatzekin batera, ez, ordea, falkonidoen edo egiazko belatzen familiaren barruan.

Liztorjaleen espezie guztiek, halere, himenopteroak dituzte beren elikaduraren oinarri, hots, liztorrak, erleak eta erlastarrak. Intsektu horiek urri direnean, armiarmak eta beste artropodo batzuk harrapatzen dituzte arazorik gabe.

Beren gorputzaren konfigurazioa guztiz moldaturik dago elikadura mota horretara, eta, horrela, lumaje gotor eta ezkatatsua dute moko-oinarene eta begien artean, eta sudur-zulo meharrek, ebakiduren antzean, eta aztarrika egiteko oin egoki bilakatu diren atzaparrak. Dauden bost espezieek 51 eta 58 zentimetro bitarteko luzera dute, eta 0,4 eta kilogramo bat bitarteko pisua.

Liztorjaleek bizimodu lasaia eramaten dute eta antz handia dute zapelatz arruntekin. Ezberdin dituz ordea isatsa, luzeagoa eta azpialdean bi lerro ilunekin, hegoak, luzeagoak eta kanpoko profil paralelokoakin eta burua, mehe-



agoa eta lirainagoa eta aurrerantz apur bat irteten zaienta. Hegoen azpialdeak, karpotetan orbain ilunekin, eta hegoen azpiko ertzetik doan zerrenda iluna dira beste ezaugarri bereizgarri batzuk. Alabaina, zapelatz liztorjaleek, bereziki gure basoetan bizi diren europarrek, lumajearen kolore eta taxu oso aldakorrek izaten ditu, eta berdin zapelatz arruntak, bata bestearekin nahas daitekeela.

ZAPELATZ LIZTORJALEAK, INSEKTUAK JANGAI

NOLA ANTZEMAN?: arrak eta emeak elkarren antzekoak dira lumajearen koloreari dagokionez, baina emeak galantagoak dira; izan ere, kilo bateko pisura iristen dira, ar txikiak kilo erdira baino iristen ez diren bitartean. Sexu bien tamaina 51 eta 58 cm bitartean dago, eta beren hegoaluzera 120 eta 126 zentimetro bitartean. Zapelatz liztorjaleen lumajearen kolorea oso aldakorra da hegazti batzuetatik bestetara, eta, izatez, ornitologoek hamabi barietate baino gehiago zehaztu dituzte. Oro har, bizkaraldea tonu marroi iluneko izan ohi da, sabelalderantz argitzen dena. Liztorjale batzuk miruak bezain ilunak dira, beste batzuk, ordea, arrano sugezaleak bezain argitsuak dira. Aldakortasun handia dagoen arren, txitaldi bereko txitoen artean ere gertatzen dena, tonu batzuk gurasoengandik kumeengana aldatzen dira aldaketarik izan gabe.

Zapelatz liztorjaleak antz handia du zapelatz arruntarekin, baina buru txikiagoa, hego luze eta meharragoak eta isatsa handiagoak ditu, itxura lirainagoa hartzen duelarik. Heldu gabeen bizkaraldeko lumajea helduena baino ilunagoa da, eta sabelaldekoa aldakorra da heldutasunean zein tonu hartuko duen arabera, argi ala ilun.



ELIKADURA: liztorraren larbak eta pupak dira bere ohiko elikaduraren oinarria, bereziki hiru espezieenak: *Vespa vulgaris*, *V. media* eta *V. germanica*. Hauetsz gain,, erleak, kakalardoak, beldarrak eta matxinsaltoak jaten ditu ere.

Era berean, ez ditu arbuatzen zizareak edo ornodun txikiak, hala nola, txoritxoak, sugeak eta saguak, igelak eta muskerrak bereziki gogoko dituelarik. Batzuetan fruituak eta beste hegazti batzuen arrautzak jaten ditu. Normalean, harrapakin horiek guztiak udaberriko lehe-

nengo egunetan jaten ditu, urri baitira orduan intsektuak. Bikote bakoitzaren ehiza-lurraldeak 3 eta 4 kilometro bitarte hartzen ditu, baina hegadarako oso trebea ez denez gero, harrapakin-bilaketa gehienetan lurrean egiten du, oso gutxitan gain-hegatzen duelarik. Alabaina, harrapari migratzailea den ikuspuntutik guztiz ondo menperatzen du hegan egiteko teknika; trebetasunez baliatzen da goranzko korranteetaz eta bide luzeak egiteko gai da planeatze teknika erabiliaz. Nabarmen gertatzen da, berebat, haizearen kontra hegan egiteko duen gaitasuna, altuera on batera igotzen da, gero basoan zuzen-behera erortzeko.

Gainera beste espezie batzuek ez bezala, ez du eguzkia noiz aterako den zain egon behar, lehenengo korronte termiko gorakorrez baliatzeko oso hegada eraginkorra baitu.

BIOLOGIA: nekez ikusi ohi da zapelatz liztorjalea hegada betean; lurrean pausatutik aurki daiteke, zuhaitzen baten behe-adar baten gainean, lumak erregularitasunez harrotuta, lurretik edo behe-altueran dabilzan intsektuei behatzen dien bitartean.

Zapelatz honek, hegada trebea egiteko gai denak, gauza bat du harrigarri, lurretik ibiltzeko duen gaitasun handia. Gainerako espezieak traketsak dira ibiltzeko, baina liztorjalearen hanka labur eta horixkeek, ezkata gogor eta atzazal luzeek hornituek, bide ematen diote trostan ibiltzeko, saltoka edo korrika egiteko, edo abiatzeko, bele edo buztanikara baten bizkortasunaz. Beste harrapari batzuenak ez bezala, bere hankak ez dira harrapakin handiak hartzeko, ezta presio handiaz hiltzeko ere ez.

Oso ikusgarri gertatzen da janari bila ibiltzen denean. Isil eta ezkutuan dabilen bitartean, luzatzen du lepoa, tente jartzen ditu garondoko lumak, altuan eusten dio paparrari eta jarrera horizontalean darama gorputz osoa.



Erdi lurperatutako liztor-kabia bat aurkitzen duenean, bere hanka batez lurrean atzaparka aritzen da artega, lurretik ateratzeraino, eta ahora eramaten du larbak irensteko, euste-hanka txandakatzen duela aldika larba guztiak irentsi arte, ondoan hegan egiten duten heldu haserreer kasurik egin gabe, bere lumek babesten baitute haien ziztaduretatik, bereziki moko ondoan eta begi inguruan dituenek; luma horiek bere hanketako ezkatzen antza dute, hain dira txiki eta gogorrak.

Babes horrekin eta guztiz, baten batek eztena sar diezaioke; beraz, uste denez, faktoreen bat egon behar da bere metabolismoan, Himenopteroen eztenekin gorputzean sartzen zaizkion likidoen kontrako halako immunitate bat ematen diona.

Basoko txori gehienek alde egiten dute hura dagoenean; ia ez dago berarekin egon nahi duenik, ezta gati bu daudenean ere. Azalpena erraza da, hots, habia bat arpilatzen ari denean, bere ondoan hegaldaka dauden liztor haserretuek inguruetan dabilen edozein animaliairen kontra lehertzen dute beren sumina, eta hura, noski, ez da triskantza egin zuena bezain garbi aterako. Batzuetan, egiten dituen zuloak hain dira handiak ezen ia bertan lurperaturik geratzen dela; beste batzuetan, zuhaitzen baten adarrean dagoen abaraskari erasotzen dio, eta, harrigarria bada ere, ez du sekulan ere ezitia jaten.

Eboluzioak trebetasun handia eman dio liztorrak harrapatzeko. Mokoaz atzeman orduko, zeharkako jarreran jartzen ditu, eta sabelaren amaiera alde ebatitzen die ezten pozoitsua ez irensteko, lurrera erortzen dena.

Zapelatz liztorjalea harrapari garbiro migra-tzailea da; tenperatura gogorenetakoa aldia Afrika tropikalean ematen du, eta neguaren amaieran etortzen da Europara ugaltzeko; hala ere, populazio ugariak dira erdi-mende-baleko Afrikan habia egiten dutenak.

Euskal Herrian ugaltzen diren bikoteak, eta europar guztiak, udatiarrak dira, ez baita bate-re liztorjalerik ikusi neguan. Martxoaren hasie-ran iristen dira lehenengo hegaztiak, baina gehienak maiatzaren hasieran iristen dira.

Habiarekiko fideltasun handia gorde ohi dute, eta bertara itzultzen dira, ugaltzera, urtean-urtean, oso narriaturik egon arren. Izan ere, arrastoren bat geratzea aski da berregiteari ekiteko. Habia zegoeneko zuhaitza desagertu bada, ondoko leku batean egiten dute.

Lehenbiziko aldiz ugaltzen diren bikoteek beste hegazti batzuen habiak erabili ohi dituz-te, esaterako, beleenak adibidez.

Estalketa gertatu baino lehen, bikoteek hala-ko hegada-agerraldi batzuk egiten dituzte: altuera handira igotzen dira hegoak astindu gabe, haize-boladen bultzadaz lagunduta, bertara iristean zirkulu handietan ekiten diote hegadari. Arrak, gorago igotzen dira eta zuzen-behera erortzen dira emeengana, hegoak astintzen dituzten bitartean txaloka aritu antzean emeak zirkuluak egiten jarrai-tzen duten bitartean.

Oso antzerako hegaldiak ikusi izan dira abuz-tuaren amaiera aldera. Hauek ordea ez dute eztei-jarduketarekin zerikusirik. Ornitologoan iritiz, lurralde-mugaketarekin erlazonaturiko adierazpe-nei zor dakieke, lurraldea berresteko eta agur egiteko era-biltzen dituzte, erriro horren bitartez heuren ezaugarriak hurrengo urterako gogoratzeko erabiliz.

Habia erraz ezagutzen da bertan metatzen dituen aba-rasken geldikinengatik, eta altuera handiko adar batean kokaturik dagoelako. Errutea baino hiru aste lehenago



hasten dira habia berregi-ten, baina ez dira eraikitzaile trebeak, eta hosto eta adar batzuk modu baldarrean jartzera mugatzen dira. Beste hegazti baten habia erabili ordez berritan egiten duten gutxietan, plataforma bat egiten dute, 50 eta 60 zentimetro bitarteko diame-trokoa eta 13 eta 16 zenti-metro bitarteko sakonera-koa. Bertan jartzen dituzte

hosto berdeak, ihartu ahala hosto berriez ordezkatzan dituztenak; horrela, arrautzak hosto artean erdi ezkutatu-rik geraruz.

Habiagintza aldatu egiten da da bikote batzuetatik beste-tara.

Emeak bi arrautza erruten ditu, inoizka 1 edo 4, maiatza-ren azken astetik ekainaren lehenera bitartean, batetik bestera bi eta bost egun bitarteko aldia utziz. Arrautzen tamaina eta kolorea oso aldakorak dira, baina normalean zuriak dira orbain marroi gorritzak dituztela. Harrigarriro, arrautzen arteko diferentziak bat etorri ohi dira, neurri on batean, txitoen lumajek agertzen dituzten diferentziekin. Txitatzea emearen ardura da; txitaldiak dirauen hilabeteen arrak eta emeak abaraska ugari eramaten dituzte habiara. Emeak inkubazioa amaitzen duenean hosto artean ezkutatzan ditu arrautzak.

Txitaldiko lehenengo hamar egunetan, emearen gor-putzaren tenperatura 28°C-tik 38°C-ra igotzen da, eta horretan dirau txitoak jaio artean. Txitoak lumatxa fin eta motz batez estaliak jaiotzen dira, bizkaraldean zuri-grisa eta buruan horixka delarik.

Emea hiltzen bada, arra ez da arrautzak inkubatzeko gauza. Eklosio unea iristen denean, ia egun bete lan behar dute txitoek eskola hausteko. Lehenengo egu-netan amak ematen die jaten, arrak eta emeak inku-bazio bitartean habiara ekarri izan dituzten abaraske-



tako larba eta pupekin eta arrak oraindik ekartzen dituenekin. Larba eta pupa horiek eman baino lehen, bigundu egiten ditu bere paparoan, baina astebeteren buruan, gutxi gorabehera, txitoek zuze-nean irensten dituzte ardura horren beharrik gabe. Arrak igel edo muskerren bat ekartzen dienean soi-lik geratzen dira zain, arrak harrapakina zatitu eta amari eman eta honek okela zatiak bana diezaz-kien. Bi asteren buruan bi orbain ilun ageri dira txito-en lumajean, lepo aldeetan, eta mendel ilun bat haien luma primarioetan. Gurasoek kontu handiaz zaintzen dituzte, eta gizaki bat hurreratzen bada habiara, emea txitoekin geratzen da hura metro gu-txitara egon arte. Era berean, adarrez estaltzen ditu txitoak alde egin behar izanez gero eta euria egite-an hegoak zabalduz babesten ditu.

Hiru aste igarota, txitoak zutik egon eta abaraskak irekitzeko gauza dira, senak eramanda aztarrika ari-tzen dira habiako hostoetan, lurretik atera antzean. Sei aste dituztela habia utzi eta hegan egiten dute hurbileko adarretara. Garai hau iristean, arrak elika-tzen ditu beste 14 edo 17 egunez. Hemendik aurre-ra, beren mantenua lortzeko gauza izan arren, gura-soenganako menpekotasun harremana mantentzen dute, hegaztiaren arabera bi eta zortzi aste bitartean iraun dezakeena.

Irailaren hasieratik erdi aldera bitartean hasten da Afrikara itzultzeko bidaia. Orduan beren izaera baketsuagoa bihurtzen da eta boladetan multzoka-tzen dira bidaia egiteko. Gantza metatu egiten dute, migrazio bidaia janaria bilatzeko ia gelditu gabe egin ahal izateko,, soilik edateko gelditu behar direlarik. Goiz hasten dute bidaia haize gutxiko egunetan, oso altuera handira igo eta gero, 45 km/orduko abiadu-rari eutsiz batez beste. Harrapari gehienek ez beza-la, zapelatz liztorjaleak edozein lekutatik zeharka dezake



Mediterraneoa, pasagune laburrenetan bildu behar izan gabe. Eguraldi txarra dagoela ere egin dezakete hegan.

HABITATA: mendi baxuak nahiago dituz-te ezartzeko, baina beren elikadura osa-tzen duten intsektuak gorago aurkitzen badira, haien bila igotzen dira zalantzarik gabe.

HEDAPENA: Europa osoan banaturik dago, iparralderago dauden koniferoen basoetatik, mediterraneo aldeko artadie-tara. Dentsitaterik altuena taigako basoe-tan ematen da. Hobespen garbia eraku-tsi ohi du klima gozo eta hezeengatik. Iberiar penintsulan bizi diren bikoteak Galiziatik Kataluniaraino bitartean aurki-tzen dira, kantauriar hariztiak, pagadi eta belardiak nagusi diren basoetan. Halaber, penintsula erdialdeko mendi-multzoen babespean, Almeriaraino hedatzen da. Euskal Herrian bizi diren hegaztiez ez ohi dute mila metroko altitudea gainditu, baina European eta Alpeetan 1.800 metro-tara iristen dira, ez dute inoiz subalpetar landaretza-maila gainditzen.



EROSI ETA KONTSUMITU BILBON, ILUSIOZ GAINEZKA

Babestu zeure auzoko komertzioa
eta ostalaritza, bertokoak.



COMPRA Y CONSUME EN EL BILBAO MÁS ILUSIONANTE

Apoya al comercio y hostelería local,
la de tu barrio.



#Bilbao2022

B
Bilbao